Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren aurrekontu-politikak 2010eko ekitaldirako honakoa du helburu: sailburuak 2009/06/22an egindako agerraldian aurkeztutako jarduketa-ildoak etengabe garatzeko laguntza eman Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Batzordean. Zeharkako ardatz batek arloetan aurreikusitako eta beren eskumenekoak diren ekintza guztiak aztertzen ditu: gure erkidegoko garapen iraunkorrak dituen erronka eta aukerentzako erantzunak diseinatzeko eta horiek adosteko beharrezana.

Ingurumeneko iraunkortasun-politikak EAEn garai hartu dira kontuan, nahiz eta gaur egun arte abian jarritako programa eta estrategiek emaitza desberdinak eman dituzten. Testuinguru honetan, sailaren helburua da ingurumeneko politikak pixkanaka-pixkanaka indartzea, aurrerabidearen eta etorkizunaren bidean, ekoizpen eta kontsumoaren egungo paradigmak hazkuntzaren eta garapenaren eredu berdera jauzia egitea. Horren nahia da Euskal Autonomia Erkidegoa iraunkortasuneko politiketan lidergo-egoeran jartzea.

Lehendakari jaunak inbestidura-ekitaldian eta EAEko Eusko Jaurlaritzak 2009ko ekainaren 5ean (Ingurumenaren Munduko Eguna) Urdaibaiko Biosfera Erreserban sinatutako Urdaibaiko itunean hartutako konpromisoari jarraiki, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailak Eco-Euskadi 2020 programaren garapena bere gain hartu du: sailen arteko gobernu-tresna. Eco-Euskadi 2020 zeharkako lan-ildo gisa ageri da, sektore-lineamenduak gaituzteko eta ekonomia, gizarte eta ingurumenaren ikuspuntutik Euskadi iraunkorraren aldeko apustua egiteko beharrezko elementuak antolatzeke gai. Eco-Euskadi 2020 proiektuak Sailen arteko Batzordea izango du, eta Lehendakariak zuzenduko du batzorde hori, eta horrek lehentasuna emango die sailen adostutako iraunkortasuneko irizpideei. Halaber, Etorkizuneko Batzordea ere izango du, aditu independenteek osatua, bai eta Jarraipen Batzordea ere, lortu nahi diren programa-helburuen bilakaera aztertzeke.

El Marco de Actuación

La política presupuestaria del Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca para el ejercicio 2010 tiene como objetivo apoyar el desarrollo progresivo de las Líneas de Actuación presentadas por la Consejera en su comparecencia de 22/6/2009 ante la Comisión de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca del Parlamento Vasco. Un eje transversal recorre el conjunto de las acciones previstas en las distintas áreas que se integran en el ámbito de sus competencias: la necesidad de diseñar y consensuar respuestas al conjunto de oportunidades y desafíos que presenta el desarrollo sostenible de nuestra Comunidad.

Las políticas de sostenibilidad medioambiental han sido objeto de atención temprana en la CAE, si bien las distintas Estrategias y Programas puestos en marcha hasta el presente han presentado un balance de resultados desigual. En este contexto, el Departamento se marca como objetivo el refuerzo paulatino de las políticas ambientales, en una senda de progreso y de futuro que pasa por la transición del actual paradigma de producción y de consumo hacia un modelo verde de crecimiento y desarrollo, cuya ambición es situar al País Vasco en una posición de tracción y liderazgo en la implementación de políticas de sostenibilidad.

En coherencia con el compromiso adquirido por el Lehendakari en su Discurso de Investidura, así como en el Pacto de Urdaibai, suscrito por el gobierno de la CAPV el día 5 de junio de 2009, Día Mundial del Medio Ambiente, en la Reserva de la Biosfera de Urdaibai, el Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca asumirá el desarrollo programático de Eco-Euskadi 2020, un instrumento de gobierno de carácter interdepartamental. Eco-Euskadi 2020 se prefigura como una línea de trabajo de carácter transversal capaz de superar los lineamientos sectoriales y de articular los elementos necesarios para hacer fragar nuestra apuesta por un Euskadi sostenible desde el punto de vista económico, social y medioambiental. Eco-Euskadi 2020 contará con una Comisión Interdepartamental, liderada desde Lehendakariak, que conferirá un carácter prioritario a la adopción de criterios consensuados de sostenibilidad en los distintos Departamentos, con un Comité de Futuro compuesto por expertos y expertas independientes y con una Comisión de Seguimiento encargada de analizar la evolución de los objetivos programáticos que se pretenden alcanzar.

Era berean, eta iraunkortasuna informazio, partaidetza eta adostasunaren ahalik eta testuingururik zabalenean kontuan hartu beharreko alderdi asko barne hartzen dituen erronka orokorra dela gogoan hartuta, sailak konpromisoa hartu du Euskal Autonomia Erkidegoaren partaidetza duten gobernu-instantziekin elkarrizketa ugari izateko, bai estatukoekin, bai Europar Batasunekoekin. Halaber, konpromisoa hartu du nazioarteko agenda politikoan garapen iraunkorarekin konpromiso solidarioa lortzeko batzar aldeaniztunetan parte hartzeko.

Barneko funtzionamenduari dagokionez, gobernu osatzen duten sailen arteko estrategia-koordinazioa sustatuko dugu, eta elkarrizketak izateko eta etengabe euskal herri-administrazioetako eskala, erakunde, organismo, elkarte, plataforma ekologiko eta gobernu kanpoko erakunde eta, oro har, herritarrekin lankidetzan jarduteko prest egongo gara. Horretarako, gure sektore-politiken arabera gobernantza-eredura egoki ditzakegun ahalegin eta sinergiak gauzatzeko ditugu, gardentasunean eta gizarte-adostasunean oinarrituta.

Ingurumena

Datozen urteotan aurrez aurre izango ditugun erronka garrantzitsuenetako bi klima-aldaketa eta biodibertsitatearen galera dira. Bi elementu horien arteko mendekotasuna kontuan hartuta, Berotegi Efectuko Gasak gutxitzeko neurriak indartu eta klima-aldaketaren aurka borrokatuko gara. Horrela, gure ekoizpen-sarearen bilakaera hobetuko dugu, eta gure energia-kontsumoaren ohiturak eredu ekoeraginkorragora bideratuko ditugu. Zentzu horretan, ekoizle eta kontsumitzaileen mentalitate-aldaketa sustatuko dugu, eta natura-baliabideen erabilera antropozentriko edo instrumentalaren orde, erabilera ekosistematikoa bultzatuko dugu; horrek oinarri hartuko ditu gure ingurumen-ondarea osatzen duten aktibo guztienganako errespetua eta horien kudeaketa arduratsua.

Oro har, gure ingurumen-arloko politikak egungo informazio- eta partaidetza-mekanismo berrien hornidura osagarria eta hobekuntza barne hartzen ditu, ahaleginak bateratzeko beharrezko aintzat hartuta, euskal herritar guztiok eta, era berean, ekintza- eta gobernu-sareek parte har dezaten gure natura-ingurunearen iraunkortasunerako ekintzan.

Klima-aldaketaren aurka egingo dugun borrokan, hainbat neurri ezarri beharko ditugu, besteak beste:

- Iturri berriztagarriak edo karbono gutxiko iturriak oinarri dituzten ekoizpen-teknologiak azterlan zehatza egitea eta horiek apurka-apurka ezartzea.
- Hain kutsatzaileak ez diren enpresek ikuskapen energetikoak egitea sustatzea eta hobariak ezartzea.
- Industria-sarean eta egoitza- eta zerbitzu-arloetan energiaren aurrezte eta eraginkortasuna sustatzea.

Igualmente, y en la plena conciencia de que la sostenibilidad es un reto multifactorial y global que debe asumirse en un contexto de información, participación y consenso lo más amplio posible, el Departamento se compromete a mantener una interlocución fluida con las distintas instancias de gobierno en que Euskadi se inserta, tanto en el marco del Estado como de la Unión Europea, y a participar activamente en las cumbres multilaterales destinadas a favorecer el compromiso solidario con el desarrollo sostenible en el marco de la agenda política internacional.

En el ámbito interno, impulsaremos la coordinación estratégica entre los distintos Departamentos que forman parte del Ejecutivo, y mantendremos abiertas vías de diálogo y colaboración permanente con las distintas escalas de la administración pública vasca, las instituciones, los organismos, las asociaciones, las plataformas ecologistas y no gubernamentales y la ciudadanía en general, capitalizando los esfuerzos y las sinergias que nos permitan adecuar nuestras políticas sectoriales a un modelo de gobernanza inclusivo, basado en la transparencia y en el consenso social.

Medio Ambiente

Dos de los retos más importantes a los que tendremos que hacer frente durante los próximos años son el cambio climático y la pérdida de biodiversidad. Conscientes de la interdependencia entre estos dos elementos, reforzaremos las medidas de reducción de GEI (Gases de Efecto Invernadero) y lucha contra el cambio climático, favoreciendo la evolución de nuestro tejido productivo y de nuestros hábitos de consumo energético hacia un modelo más ecoeficiente. En este sentido, impulsaremos el cambio de mentalidad de productores y consumidores, propiciando el relevo del uso antropocéntrico e instrumental de los recursos naturales por un modelo de uso ecosistémico, basado en el respeto y la gestión responsable de todos aquellos activos que forman parte de nuestro patrimonio medioambiental.

Desde un punto de vista general, nuestra política en materia de Medio Ambiente contempla la dotación adicional y la mejora de los actuales mecanismos de información y participación, con el fin de subrayar la necesidad de aunar esfuerzos encaminados a la implicación de todos y cada uno de los ciudadanos y ciudadanas vascos, así como de las distintas redes de acción y de gobierno, en una acción conjunta por la sostenibilidad de nuestro entorno natural.

Nuestra lucha contra el cambio climático requerirá la implementación de medidas tales como:

- El estudio detallado y la implantación progresiva de tecnologías de producción basadas en fuentes renovables o bajas en carbono.
- El impulso a la realización de auditorías energéticas y la implementación de primas a las empresas menos contaminantes.
- El fomento del ahorro y la eficiencia energética en el tejido industrial y en las áreas residenciales y de servicios.

- Teknologia berdeetan eta ingurumenari dagokionez eraginkorrak diren teknologietan inbertitzea sustatzea.
- Eta ekoberrikuntza ikertzea.

Bigarren erronkari, biodibertsitatea babesteari, aurre egiteko, sailak honakoak izango ditu gogoan, batik bat

- Arau-mailaz hornitzea espazio naturalen beharrezko konexioa, fauna eta landarediko espezieek beharrezko habitata eta korridoreak izan ditzaten, beren populazioak babestu ahal izateko. Korridore Ekologikoen Sareari beharizan horren bermatzaile izateko eskatu zaio.
- Fauna eta Landaredian Arriskuan dauden Espezieen Euskadiko Katalogoa eguneratu eta zabaltzea.
- Fauna eta landarediko espezie exotiko inbaditzaileen azterlan-proiektua amaitzea, bai eta kontrol-neurriak eta sentsibilizazio-kanpainak diseinatzea ere.
- Euskadiko Bioaniztasun Zentroa nazioarteko eredu izatea, pixkanaka-pixkanaka.
- Urdaibaiko Biosferaren Erreserba bultzatzea; horretarako, lehenengo egoeraren balorazio zehatza egiteko diagnostikoa egin eta, gero, modu integralean eta iraunkorrean erreserba etorkizunean zaindu, leheneratu eta planifikatzeko ad hoc neurriak diseinatzea.

Era berean, ingurumenaren gaineko espedienteen izapidetzean izandako atzerapena konpontzeko beharrezko erabakiak hartuko ditugu, eta kudeaketa-tresna berriak aplikatuko ditugu, ingurumen-administrazioaren funtzionamendu arina eta eraginkorra bermatu ahal izateko.

Lurralde Antolamendua eta Urak

Sailaren aurreikuspenak, Lurralde Antolamenduari dagokionez, lurraldearen kudeaketa iraunkorrean oinarritzen dira, eta lehenetasunen artean, besteak beste honakoak daude: lurraldeen arteko oreka eta lotura, lurraldearen erabilera arduratsua eta baliabide hidrikoak eta gure paisaia-aktiboak balioa ematea.

Horretarako, 2010. urterako antolatutako aurrekontuak:

- Lurraldearen Antolamenduaren gidalerroak berrikustea, herri-administrazio eta inplikaturako sektoreekin adostasunean.
- Oraindik egin ez diren Lurraldearen Antolamendurako Plan Partzialen eta Sektore Planen azterlan zehatza egitea eta horren izapidetze-egoeraren arreta zehatza egitea.
- Pasaia Badi leheneratzeko proiektua hastea.
- Industria-aurriak eraisteko diru-laguntzak emateko proiektua mantentzea.

- La incentivación de las inversiones en tecnologías verdes y ambientalmente eficientes.
- Y la investigación en ecoinnovación.

Para afrontar el segundo reto, la preservación de la biodiversidad, el Departamento prestará especial atención a:

- La dotación de rango normativo a la necesaria conectividad de los espacios naturales, a fin de que las especies de fauna y flora dispongan de los hábitats y corredores necesarios para poder preservar sus poblaciones. La Red de Corredores Ecológicos está llamada a operar como garante de esta necesidad.
- La actualización y difusión del Catálogo Vasco de Especies de Fauna y Flora Amenazada.
- La culminación del proyecto de estudio de las especies de flora y fauna exótica invasoras, así como el diseño de medidas de control y campañas de sensibilización.
- La consolidación paulatina del Centro de la Biodiversidad de Euskadi como un referente internacional.
- El impulso decidido a la Reserva de la Biosfera de Urdaibai, empezando por un diagnóstico que nos permita efectuar una valoración pormenorizada de su estado y el subsiguiente diseño de medidas ad hoc de atención, regeneración y planificación integral y sostenible del futuro de la reserva.

Asimismo, adoptaremos las decisiones necesarias para subsanar el atraso heredado en la tramitación de expedientes ambientales y aplicaremos nuevos instrumentos de gestión capaces de garantizar un funcionamiento ágil y eficiente de la Administración Ambiental.

Planificación Territorial y Aguas

Las previsiones del Departamento en materia de Planificación Territorial se enmarcan en una línea de gestión sostenible del territorio que contempla como prioridades el equilibrio y la cohesión interterritorial, el uso responsable del suelo y los recursos hídricos y la puesta en valor de nuestros activos paisajísticos.

A tal fin, los Presupuestos habilitados para 2010 prevén:

- La necesaria revisión de las Directrices de Ordenación del Territorio, en un marco de consenso con las administraciones públicas y los sectores implicados.
- El análisis detallado de los Planes Territoriales Parciales y Sectoriales pendientes y la atención pormenorizada al estado en que se encuentra su tramitación.
- La iniciación del proyecto de regeneración de la Bahía de Pasajes.
- El mantenimiento del programa de concesión de ayudas económicas para la demolición de ruinas industriales.

- EAEko baliabide hidrikoen politika integrala diseinatzea, Uraren Esparru Zuzentaruarekin (UEZ) bat etorrita, horren egoera kuantitatibo eta kualitatibo egokia lortzeko, ekosistemekin errespetuzkoa izango dena.
- Ur-sistema degradatuak etengabe berreskuratzea eta horien ekologia-egoera egokia mantentzea.
- Ekonomiaren aldetik, beste ikuspuntu bat izatea, Uraren Esparru Zuzentaruak ezarritako kostuak berreskuratzen printzipioaren arabera.
- Eta Kantauriko eta Ebroko erkidego arteko arroen kudeaketa aktiboan parte hartzea.

Nekazaritza eta Landa-garapena

Landa-munduko garapen iraunkorra Euskal Autonomia Erkidegoaren kezkarik nagusienetakoa da; kezka horrek orain arte hartu izan diren neurriak ditu oinarri, dela autonomia-mailan, dela estatu-mailan, sektoreko jardueren gainean. Testuinguru hirukoitz horretan, azken urteotan sentsibilizazio-prozesu gero eta handiagoa bizi izan dugu, ingurumenarekin errespetu handiagoa izan duen kudeaketa- eta ekoizpen-ereduarekin; hori gaitz izan da espazio naturalen babesa eta kultura- eta paisaia-balioak bermatzeko eta kontsumitzaileari produktu osasungarri eta kalitate onekoak eskaintzeko. Hala ere, kontrazio ekonomikoko egungo testuinguruan, tradizioz diru-laguntzak jaso izan dituen sektorea dela kontuan hartuta, euskal nekazaritzan, besteak beste, politika publikoek ahalegin handiagoak egin ditzakete eta egin behar dituzte dibertsifikazioa eta lehiakortasuna garatzeko. Politika horien estrategia-ildo nagusiak honakoak dira 2010 urterako:

- Iritzi publikoari nekazaritza-inguruneak, ingurumenaren erreserba den aldetik, duen garrantzia ohartarazteko gaitz diren sentsibilizazio-kanpainak diseinatzea. Nekazaritza-inguruneak erabat idiosinkrasikoak diren kultura-balioak ditu, eta gure eguneroko elikadura osatzen duten produktugama zabalaren kudeatzailea da.
- Familia-nekazaritzari laguntza ematea, bai eta ustiapenen neurria egokitzeari ere. Halaber, kooperatibismoa sustatzea, Nekazaritzako Kooperatibismoaren Plan Estrategikoaren bidez, nekazaritzako modernizazioaren eredu gisa, ekoizpen-marjina zabalak eskatzen dituzten merkatuetako egoera sendotzeko gaitz dena.
- Ustiapenak mantentzen dituzten familia-egiturei laguntza eta konponbideak ematen dizkieten nekazaritzatik kanpoko jardueretara dibertsifikatzea ustiapenak: landaturismoa, familiako nekazaritza-industria, energia berriztagarriak, ingurumenaren kontserbazioa eta paisaia-ondarea edo ingurumen-hezkuntza, garatzeko eta sendotzeko bidea hasi duen hiri-biztanleriarentzako zerbitzu-sare gisa.

- El diseño de una política integral de los recursos hídricos de la CAE que, en coherencia con la Directiva Marco del Agua (DMA), estará orientada a conseguir que estén en buen estado cualitativo y cuantitativo plenamente respetuosa con los ecosistemas que alberga.
- La recuperación progresiva de los sistemas acuáticos degradados y el mantenimiento de su buen estado ecológico de los mismos.
- La adopción de un nuevo enfoque económico acorde con la perspectiva desde la que se aborda el principio de recuperación de costes establecido por la Directiva Marco del Agua.
- Y la participación activa en la gestión de las cuencas intercomunitarias del Cantábrico y del Ebro.

Agricultura y Desarrollo Rural

El desarrollo sostenible del mundo rural constituye una de las preocupaciones más relevantes a que se enfrenta la Comunidad Autónoma del País Vasco, preocupación avalada por el conjunto de medidas que se han venido articulando, tanto a escala autonómica como estatal y comunitaria en relación con las distintas actividades que se registran en el sector. En ese triple contexto, en los últimos años hemos venido asistiendo a un proceso de sensibilización creciente con un modelo de gestión y producción más respetuoso con el medio ambiente, capaz de garantizar la preservación de los espacios naturales y los valores culturales y paisajísticos y de ofrecer al consumidor productos sanos y de alta calidad. Sin embargo, en el actual contexto de contracción económica, y tratándose de un sector tradicionalmente subsidiado, el agro vasco se impone como uno de los campos en los que las políticas públicas pueden y deben aplicar mayores esfuerzos para la diversificación y el desarrollo de un potencial competitivo cuyas principales líneas estratégicas para 2010 enunciamos a continuación.

- El diseño de campañas de sensibilización capaces de trasladar a la opinión pública la importancia del entorno agrario como reserva medioambiental, depositaria de valores culturales fuertemente idiosincrásicos y gestor en origen de una amplia gama de productos que constituyen la base de nuestra alimentación.
- El Apoyo a la agricultura familiar y al redimensionamiento de las explotaciones, así como la potenciación del cooperativismo a través de un Plan Estratégico de Cooperativismo Agrario como fórmula asociativa de modernización agraria capaz de consolidar nuestra situación en los mercados que demandan márgenes amplios de producción.
- La diversificación de las explotaciones hacia actividades no agrícolas que den apoyo y soluciones a las estructuras familiares que las sustentan: el turismo rural, la agroindustria familiar, las energías renovables, la conservación del medio ambiente y el patrimonio paisajístico o la educación ambiental, como red de servicios dirigida a la población urbana que está iniciando una senda de desarrollo y consolidación.

- Azpisektoreetako problematika berezietan ardatza duten ekintzak garatzea, besteak beste esne-behien, haragi-behien, mahastizaintza eta ardogintza eta basoen azpisektoreei eragindakoa.
- Landa-garapenaren apustu sendo eta irmoa egitea, gune horretan bizi direnekin konpromiso gisa ez ezik, ezinbesteko lurralde-egituratze, gizarte-kohesio eta garapen iraunkorraren oinarri gisa ere. Garapen iraunkor horrek zeharkako koherentzia ematen die sailak egin beharreko ekintzei.
- Landa-eremuko Emakumeentzako Ekintza Plana egitea, bizitza pertsonalaren, familia- eta lan-bizitzaren arteko harremana errazteko; horretarako, landa-eremua sentibilizatzeko genero-politikak ezarriko dira, denboraren kudeaketa egokiarekin.
- Landa-inguruneke ekonomia-jardueren jarduerak dibertsifikatzea; horretarako, landa-mundua informazioaren eta komunikazioaren teknologietan gehiago sartzea bultzatuko da. Halaber, nekazaritzako elikagaien industriak ezartzea sustatuko da, familia-ustiapenetatik hurbil, eta, horrela, laneratzeko aukerak gehituko dira.
- El desarrollo de acciones focalizadas en problemáticas específicas subsectoriales, tales como las que afectan a los subsectores vacuno de leche, vacuno de carne, vitivinícola y forestal.
- La apuesta firme y decidida por el Desarrollo Rural, no sólo desde una visión de compromiso con las personas que viven en este medio, sino también como base inexcusable de la vertebración territorial, la cohesión social y el desarrollo sostenible que dota de un marco de coherencia transversal al conjunto de acciones a desarrollar desde el Departamento.
- La elaboración de un Plan de Acción Positiva de la Mujer Rural que facilite la conciliación entre la vida personal, familiar y laboral, fomentando la implementación de políticas de género destinadas a sensibilizar a la población rural con una gestión corresponsable del tiempo.
- La diversificación de las actividades económicas en el medio rural, potenciando la formación técnica, ampliando el acceso del mundo rural a las tecnologías de la información y la comunicación, promoviendo la instalación de industrias agroalimentarias cercanas a las explotaciones familiares y ampliando, de ese modo, las posibilidades de inserción laboral.

Arrantza eta Elikagai Industria

Saileko politika guztiak zeharkatzen dituen ardatzaren ildotik, EAEko arrantza-politika Arrantza Politika Bateratuaren (APB) funtsezko ardatzean osatzen joan den eta itsas ekosistemekiko errespetua oinarri dituzten baliabideen kudeaketari lehenatsunezko garrantzia ematen dion iraunkortasun-esparruan sartzen da.

Euskal harrapaketa-sektorearen zailtasunak ugari dira, besteak beste: kala tradizionalak arrantza-baliabideak murriztea, akuikulturaren garapen eskasa edo globalizazioaren ondoriozko lehiakortasun eza. Zailtasun horiek guztiak eragina izan dute transformazio sektorean, beraz, estrategia aringarriak eta sektorea indartzeko tresnak diseinatu behar dira, esaterako:

- Prestakuntza-eskaintza gizartearen eskakizunetara egokitzea, itsasketa eta arrantzaren prestakuntzarako eskolen kudeaketa zorrotzaren bidez.
- Akuikulturari laguntza emateko ekimenak sustatzea, egun arte Euskal Autonomia Erkidegoan, enpleguari eta ekoizpenari dagokienez, garrantzi gutxikoa izan baita.
- Sektore transformatzailearen lehiakortasuna indartzea eta beste transformazio-proiektu batzuk sustatzea, balio erantsia duten produktuak dibertsifikatu eta sustatzeko Nekazaritza eta Elikadura arloarentzat proposatutako estrategien ildotik.
- Harrapaketa-jarduera *stocken* egoerara egokitzea, iraunkortasun- irizpidearen bidez, dauden arau-esparruen ildotik.

Pesca e Industrias Alimentarias

En línea con el eje transversal que recorre todas las políticas del Departamento, la política pesquera de la CAE se inscribe en el marco de sostenibilidad que ha venido constituyéndose en un eje fundamental de la Política Pesquera Común (PPC) y que otorga una importancia prioritaria a una gestión de los recursos basada en el respeto a los ecosistemas marinos.

Las dificultades por las que atraviesa el sector extractivo vasco, tales como la disminución de los recursos en caladeros tradicionales, el escaso desarrollo de la acuicultura o la pérdida de competitividad por efecto de la globalización, han mostrado su impacto en el sector transformador, aconsejando el diseño de estrategias paliativas y de instrumentos de refuerzo del sector entre los que destacan:

- El acoplamiento de la oferta de formación a las demandas de la sociedad, mediante una gestión rigurosa de las Escuelas de Formación Náutico Pesqueras.
- El impulso de iniciativas de apoyo a la acuicultura, hasta la fecha un nicho de empleo y producción minoritario en el País Vasco.
- El fortalecimiento de la competitividad del sector transformador e impulso de nuevos proyectos de transformación, en línea con las estrategias de diversificación y fomento de los productos con Valor Añadido propuestas para el área de Agricultura y Alimentación.
- El ajuste de la actividad extractiva al estado de los stocks mediante un criterio de sostenibilidad, en línea con los marcos normativos existentes.

- Harrapatutako kilogramoko, energia-kontsumoa murriztea helburu duten proiektuetan inbertitzeari laguntza ematea, eta proiektu horiek, beraz, ekoeraginkorragoa eta lehiakorragoa izango den arrantza-sektorea eratzen lagun dezaten.

- Finantza-tresnak eta beharrezko protagonismoa ematea arrantza eta akuikulturaren eremuan berrikuntza-programei.

- Arrantza arduratsuko FAOen Jarrera Kodearen ezarpena sustatzea Euskal Autonomia Erkidegoko azpisektore guztietan.

- Eta ekonomia-dibertsifikazioko proiektuei laguntza ematea, baldin eta arrantzaren mende-mendeko eremuei garatzeko eta hazteko aukerak ematen badizkiete.

Azkenik, elikagai-industriari dagokienez, neurri estrategikoak hartuko ditugu:

- Nekazaritza eta ekologia-abeltzaintza sendotu eta garatzea.

- Tokiko nekazaritza eta abeltzaintzako ekoizpenei laguntza ematea, merkaturatzeko ibilbide laburren bidez.

- Arrantzaren jatorriaren eta merkaturatzearen arteko lotura sustatzea; horretarako, sailkapenerako eta lehen aldaketarako teknologia berriak sartuko dira, katearen lehenengo etapetan sektoreari onura ekarriko dioten baliozko jarduerak osatzeko.

- Elikagaien balio-katearen lehiakortasuna irmotasunez eta modu seguruan sustatzea, kalitate eta segurtasunaren arloan balio erantsi altua duten produktuen gama garatuz.

- Duela gutxi onetsitako Elikagai Industriaren eta Kalitatearen Planak aurreikusitako estrategiak garatzea, enpresa-kudeaketaren eredu berriak sortuz, ekoizpen-, kudeaketa- eta logistika-prozesuak modernizatuz, *e-business*-en tresnak sartuz, I+G+b ardatza garatuz eta merkataritza-sareak indartuz.

- Kalitate oneko produktuak bultzatzea eta artisautza-ekoizpenarentzako araudi berezia garatzea.

- Label kalitatearen zigiluaren babesean dauden ekoizpenei laguntza ematea; horretarako, araudiak eguneratuko dira, merkaturako errealitate berrietara egokitzeko.

- Euskal Herriko kalitate oneko produktuen alde apustua egitea, "Euskal Herriko Elikagai Osasungarriak" kalitate-ziurtagiriaren bidez.

- EAEko produktuen barne-merkatua indartzea.

- El apoyo a la inversión en proyectos que tengan por objetivo la disminución del consumo de energía por kilogramo capturado, y que contribuyan, por lo tanto, a perfilar un sector pesquero más ecoeficiente y competitivo.

- La dotación de instrumentos financieros y del protagonismo necesario a los programas de innovación en el ámbito de la pesca y la acuicultura.

- El impulso a la implantación del Código de Conducta de la FAO de Pesca Responsable en todos los subsectores de la pesca de Euskadi.

- Y el apoyo a proyectos de diversificación económica que presten a las Zonas Altamente Dependientes de la Pesca nuevas oportunidades de desarrollo y crecimiento.

Finalmente, y en relación con las Industrias Alimentarias, adoptaremos medidas estratégicas encaminadas a:

- La consolidación y desarrollo de la agricultura y la ganadería ecológicas.

- El apoyo a las producciones agroganaderas locales a través de circuitos cortos de comercialización.

- El fomento de la vinculación de la extracción pesquera con la comercialización, incorporando nuevas tecnologías de clasificación y primera transformación que integren en las primeras etapas de la cadena actividades de valor que beneficien al sector extractivo.

- El impulso firme y decidido a la competitividad de la cadena de valor alimentaria, mediante el desarrollo de una gama de productos de alto Valor Añadido en términos de calidad y seguridad.

- El desarrollo de las estrategias previstas por el recientemente aprobado Plan de la Industria y Calidad Alimentaria mediante la creación de nuevos modelos de gestión empresarial, modernización de procesos productivos, de gestión y logísticos, la incorporación de herramientas *e-business*, el desarrollo del eje I+D+i y el fortalecimiento de las redes de comercialización.

- El impulso a los productos de alta calidad y el desarrollo de una normativa específica destinada a la producción artesanal.

- El apoyo a las producciones amparadas bajo el sello de calidad Label, actualizando sus reglamentos para adaptarlos a las nuevas realidades del mercado.

- La apuesta global por los productos de calidad del País Vasco, a través de la certificación de calidad "Alimentos Saludables del País Vasco".

- Y el fortalecimiento del mercado interior de los productos de la CAPV.

Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailari atxikitako erakunde, sozietate publiko eta fundazioek gure gobernu-ekintzaren babes garrantzitsua osatzen dute. Ekonomiaren, gizartearen eta ingurumenaren garapen iraunkorraren gaineko programari eman diezaioketen indar guztia garatzeko, aurreikusi dugu azterketa zehatza egitea, diagnostiko zorrotza egin ahal izateko, 2010. urterako Jarduketa Eremu honetan jaso diren garapenerako eta etorkizuneko apostuetan partaidetza egituratzeko.

Las entidades, sociedades públicas y fundaciones adscritas al Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca constituyen un baluarte decisivo de nuestra acción de gobierno. Con el fin de desarrollar todo el potencial que pueden aportar a un programa de desarrollo económica, social y ambientalmente sostenible, hemos previsto realizar un análisis pormenorizado que nos permita emitir un diagnóstico riguroso en tono al que articular su participación en el conjunto de apuestas de desarrollo y de futuro que se integran en el presente Marco de Actuación para 2010.

PROGRAMA	PROGRAMA
4313 LURRALDE ANTOLAMENDUA	4313 ORDENACIÓN TERRITORIAL
ARDURADUNA	RESPONSABLE
<u>10 INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA</u>	<u>10 MEDIO AMBIENTE, PLANIFICACIÓN TERRITORIAL, AGRICULTURA Y PESCA</u>
LURRALDEAREN ANTOLAMENDUKO ZUZENDARITZA	DIRECCIÓN DE ORDENACIÓN DEL TERRITORIO

MEMORIA

Eusko Jaurlaritzak gehitu ostean Paisaiaren Europako Hitzarmenaren printzipio, helburu eta neurrietara, Ingurumen, Lurralde Antolamendu, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren borondatea da, Lurralde Antolamenduko Zuzendaritzaren bitartez dirulaguntza zuzena ematea Euskal Herriko Unibertsitatearekin eta UNESCO Etxearekin lankidetzak hitzarmen bat eginda, lurralde eta paisaia gaitarako Nazioarteko Masterra diseinatzeko. Halaber, 2010ean Paisaia erantsiz jarraituko da Lurralde Antolaketako dokumentuetan eta bereziki lurralde estrategia berrian.

Lurraldea Antolatzeko Jarraibideak berriz aztertzearen prozesuan, 2010ean zehar jarraituko da dokumentu horren izapidetzearekin.

Lurraldearen zatiko eta Arloko Plangintza sustatzeko prozesuaren barruan, 2010. ekitaldian zehar aurreko ekitaldietako dinaminekin jarraituko dugu. Lurraldearen Zatikoko Plangintzari dagokionez, Gipuzkoan Donostia-Bidasoa Behereko (Donostialdea) Lurraldearen Zatikoko Plana eta Tolosako Eremu Funtzionalari dagokiona onartuko dira. Bizkaian, Balmaseda-Zalla, Igorre, Durango eta Gernikako Lurraldearen Zatikoko Planen izapidetzea bukatuko da, eta Mungiaiko Lurraldearen Plana izapidetzen jarraituko dugu. Araban Guardiako Lurraldearen Zatikoko Planaren aldaketaren onespina gauzatuko da, hain zuzen ere, Upategien antolamenduari dagokiona. Lurraldearen Arloko Plana dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoko ibaien eta erreken ertzak antolatzeko lurraldearen Arloko Planaren aldaketa amaitu nahi da; aldaketa hori Uraren Esparru-zuzentara egokitzeko eta uholde-arriskuei buruzko irizpide berriak aplikatzeko egingo da.

Después de la adhesión del Gobierno Vasco a los principios, objetivos y medidas del Convenio Europeo del Paisaje, es voluntad del Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca, a través de la Dirección de Ordenación del Territorio, la concesión de una subvención directa en el marco de un convenio de colaboración con la Universidad del País Vasco y UNESCO Etxea para el diseño de un Máster internacional en territorio y paisaje. Asimismo, se continuará en el año 2010 con la incorporación del Paisaje en los documentos de Ordenación Territorial, y en particular, en la nueva estrategia territorial.

Dentro del proceso de Re-estudio de las Directrices de Ordenación Territorial se continuará durante el año 2010 con la tramitación de este documento.

Dentro del proceso de promoción del Planeamiento Territorial Parcial y Sectorial a lo largo del ejercicio 2010 se continuará con las dinámicas de ejercicios anteriores. En cuanto al Planeamiento Territorial Parcial, en el caso de Gipuzkoa se procederá a la tramitación de la Aprobación Inicial del Plan Territorial Parcial de Donostia-Bajo Bidasoa (Donostialdea), así como el correspondiente al Área Funcional de Tolosa. En Bizkaia se procederá a culminar la tramitación de los Planes Territoriales Parciales de Balmaseda-Zalla, Igorre, Durango y Gernika, y continuar con las labores de tramitación del Plan Territorial de Mungia. En Álava culminar la aprobación de la modificación del Plan Territorial Parcial de Laguardia relativa a la ordenación de las Bodegas. En relación a los Planes Territoriales Sectoriales, se plantea finalizar la modificación del Plan Territorial Sectorial de Márgenes y Arroyos de la Comunidad Autónoma en su adaptación a la Directiva Marco del Agua y la aplicación de nuevos criterios de inundabilidad.

Industria-aurriak eraisteko Programaren barruan, Sailak, aurkeztu diren eskaera guztiei erantzun nahi die eta finkatutako hiriari buruzko etengabeko zeregin luze honekin jarraitu. 2010ean jarraitzea aurreikusi da, Bilbo metropoli inguruko eta Pasaia Badia inguruko jarduerekin.

UDALPLAN ETA INBENTARIOA programek lurraldeko edozein puntutako egoera urbanistikoa ezagutzea ahalbidetzen dute, udaleko plangintzaren informazio gaurkotuaren kudeaketaren bitartez.

Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Batzordearen lanak, 2/2006 Legeak indartua, ekainaren 20koak, aukera ematen du lurralde-plangintza eta udal-plangintza fiskalizatzeko Gidalerroetan zehaztutako jarraibide orokorren arabera. Gai horretan esleitutako zereginak dira, besteak beste: Sailak sustatzen dituen ingurumen arloko lanak tarteko desjabetze-jarduerak aurrera eramatea, eta berehala hartu beharrekoak direla deklaratzeko. Jendartearen eskariari erantzun egokia emango dion lurralde-antolamenduaren helburu orokorra lortzea da helburua.

Diziplina hedatzeko programekin jarraituko du Zuzendaritzak (EUSKAL HIRIA); aurreko zazpi edizioen ondoren, erreferente bihurtu da Lurralde Antolamenduaren eta Hirigintzaren diziplinak hedatzeko kongresu gisa, eta onarpen zabala du inguru administratibo eta profesionaletan. Orobat, diru-laguntza programekin eta Lurraldearen Antolamenduaren gaia aztertu eta ikertzen duten erakundeekiko lankidetzaz hitzarmenekin jarraituko da.

Hiri inguruko parkeen programaren barruan, Arabako Foru Aldundiarekin hitzartutako moduan, Nerbioiko Parke Lineala egiten ari dira. Lurralde Plangintzako Zuzendaritzaren nahia da halaber, beste Udal eta Udal-Erakunde batzuekin elkarlanean aritzea, bestelako parkeetan jarduerak egiteko.

Kartografiaren esparruan, oinarri kartografikoak, ortoargazkiak eta altxaeren eredu digitalak eguneratzen jarraituko dugu, betiere Foru Aldundiekin, Udaletxeekin eta Geografi Institutu Nazionalarekin lankidetzan, Kartografia eta Geodesiaren gaian zerbitzu koordinatua eta efizientea bermatzeko.

Euskadiko GPS Estazioen Sarea Euskal Autonomia Erkidegoko geodesiaren erreferentzia-esparrua da. Zerbitzua hobetzen jarraitu eta autonomia erkidego mugakideekin eta Geografia Institutu Nazionalarekin harremanetan jarri nahi da, denetan protokolo eta prozedura berdinak jartzeko, horrela, sarearen koordinatuen kalkulua hobetzeko, gertueneko estazio mugakideak euskarri direla.

Dentro del Programa de Demolición de Ruinas Industriales es voluntad departamental atender aquellas solicitudes que puedan presentarse, y proseguir con esta tarea larga y continuada de actuación sobre la ciudad consolidada. Para el ejercicio 2010 se prevé seguir con las actuaciones en el entorno del Bilbao Metropolitano y la Bahía de Pasajes.

Los programas UDALPLAN e INBENTARIOA, permiten el conocimiento de la situación urbanística de cualquier punto del territorio, mediante la gestión actualizada de la información del planeamiento municipal.

La labor de la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco reforzada con la aprobación de la Ley 2/2006, de 20 de Junio permite la fiscalización del planeamiento territorial y municipal de acuerdo con las pautas globales definidas en las Directrices. El ejercicio de actuaciones de expropiación en diversas operaciones de carácter ambiental promovidas por el Departamento y las actuaciones de declaración de urgencia a la ocupación, son otros de los cometidos asignados en la materia en orden al objetivo global de la consecución de una ordenación territorial que dé respuesta adecuada a la demanda social.

La Dirección continuará con sus programas de difusión de la disciplina (EUSKAL HIRIA) que, tras las siete ediciones anteriores, constituye un referente en cuanto a congreso de difusión de las disciplinas de la Ordenación Territorial y del Urbanismo, con gran aceptación en medios administrativos y profesionales. Así mismo, se continuará con los programas de subvenciones y convenios de cooperación con entidades de estudio e investigación en materia de Ordenación del Territorio.

Dentro del programa de Parques Periurbanos se está llevando a cabo de forma convenida con la Diputación Foral de Álava, la ejecución del Parque Lineal del Nervión. Asimismo es interés de la Dirección de Planificación Territorial la colaboración con otros Ayuntamientos y Entidades Locales para la realización de actuaciones en otros posibles Parques.

En el ámbito de la Cartografía, se continuará con la actualización de las bases cartográficas, las ortofotografías y los modelos digitales de elevaciones, procurando realizarlo en colaboración con las Diputaciones Forales, Ayuntamientos y el Instituto Geográfico Nacional, de forma que se garantice un servicio coordinado y eficiente en materia de Cartografía y Geodesia.

La Red de Estaciones GPS de Euskadi es el marco de referencia geodésico de la Comunidad Autónoma de Euskadi. Se pretende seguir mejorando sus servicios así como establecer los contactos con las CCAA limítrofes y el Instituto Geográfico Nacional, tendentes al establecimiento de protocolos y procedimientos comunes, que sirvan para mejorar el cálculo de las coordenadas de la red, apoyándose en las estaciones limítrofes más próximas.

Funtsezkoa izango da Euskadiko Datu Espazialen Azpiegitura abian jartzea (DEA-Euskadi), gure Erkidegoan kartografia egiten duten gainerako erakunde guztiek batera, Eusko Jaurlaritzako Geografi Informazio Sistema garatzea eta, Kartografia eta Geodesia arloan informazioa sustatu eta zabaltzea. Beste zeregin batzuetan ere egingo da lan: Euskal Autonomia Erkidegoko Izendegi Ofizialaren lanketa, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzarekin lankidetzan.

1. LURRALDEAREN ANTOLAMENDUA ETA ITSASERTZA

Arlo honek honako jarduera-esparru hauek jasotzen ditu:

Lurraldearen Antolamendua eta paisaiaren arloan behar diren arau-proiektuak landu eta izapideak egitea.

Euskal Herriko Lurralde Antolakuntzari buruzko 4/90 Legean aurreikusitako lurralde-antolamenduko agiriak sustatu, bideratu eta onestea: zehazki, Bizkaia eta Gipuzkoako Lurraldearen Zatik Planak eta Lurraldearen Arloko Planak.

Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Batzordea kudeatzea, 2/2006 Legeak zehaztutakoaren arabera idatzitako lurralde-plangintzaren testuinguruan.

Sail honen 4/90 Legearen 26. artikuluan adierazitako eginkizunak burutzea. Gobernu Kontseiluari aurkeztu beharreko dekretuak lantzea (Nahitaezko desjabetzeak eragiten dien ondasun eta eskubideak berehala hartu beharrekoak direla aldarrikatzea, etab.).

Industria Aurrien arazoak eragiten dien eremuen Lurralde Antolamendua.

Lurralde Plangintzarako zehaztapenak garatzea, eta horiek burutzeko udalekin hitzarmenak sinatzea.

Nerbioiko Parke Lineala bideratzea, Arabako Foru Aldundiarekiko hitzarmen bidez.

Arestian aipatutako Lurraldearen Antolamendurako tresnak idatzi ahal izateko, EAEko lurraldeetako Datu-bankua ere aldi berean eguneratu behar da (UDALPLAN eta INBENTARIOA).

Desjabetzeko ahalmenak eragin ditzakeen egitekoak gauzatzea, Sallari esleitutako jarduerak burutu ahal izateko.

2. LURRALDE INFORMAZIOAREN ARLOA

Arlo honetan honako jarduera-esparru hauek zehazten dira:

Foru Aldundiekin lankidetzak-hitzarmenak izenpetzea, Geodesia, Kartografia eta Informazio Geografikoko Sistemen alorrean egiten den gastua koordinatua eta efizientea izan dadin.

Será fundamental la puesta en marcha de la Infraestructura de Datos Espaciales de Euskadi (IDE Euskadi), junto con el resto de organismos productores de cartografía de nuestra Comunidad, el desarrollo e implantación del Sistema de Información Geográfica Corporativo del Gobierno Vasco, y el fomento y divulgación de información en materia de Cartografía y Geodesia. Otro de los cometidos a llevar a cabo será la continuación con la elaboración del Nomenclátor Oficial de la Comunidad Autónoma de Euskadi en colaboración con la Viceconsejería de Política Lingüística.

1. AREA DE ORDENACIÓN DEL TERRITORIO Y LITORAL

Este área contempla los siguientes campos de actuación:

Elaboración y tramitación de proyectos normativos en materia de Ordenación del Territorio y Paisaje.

Promoción, tramitación y aprobación de los documentos de ordenación territorial previstos en la Ley 4/90 de Ordenación del Territorio del País Vasco, en concreto los Planes Territoriales Parciales de Bizkaia y Gipuzkoa y los Planes Territoriales Sectoriales.

Gestión de la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco en el contexto del planeamiento territorial redactado de acuerdo con lo definido en la Ley 2/2006.

Ejecución de las tareas encomendadas por el Art. 26 de la Ley 4/90 de este Departamento. Elaboración de Decretos a elevar ante el Consejo de Gobierno (Declaración de urgencia a la ocupación de los bienes y derechos afectados por la expropiación forzosa, etc.).

Ordenación Territorial de áreas afectadas por la problemática de Ruinas Industriales.

Desarrollo de determinaciones de Planeamiento Territorial, así como Convenios con Ayuntamientos para su ejecución.

Desarrollo del Parque Lineal del Nervión mediante Convenio con la Diputación Foral de Álava.

La redacción de los instrumentos de Ordenación Territorial arriba citados precisan la actualización paralela del Banco de Datos Territoriales de la CAE (UDALPLAN e INBENTARIOA).

Ejecución de las tareas derivadas del ejercicio de la potestad expropiatoria para la ejecución de actuaciones atribuidas al Departamento.

2. AREA DE INFORMACIÓN TERRITORIAL

Este área contemplará los siguientes campos de actuación:

Firma de Convenios de Cooperación con las Diputaciones Forales que garanticen un gasto coordinado y eficiente en materia de Geodesia, Cartografía y Sistemas de Información Geográfica.

Eusko Jaurlaritzaren Base Topografiko bateratua eguneratzea, Foru Aldundiekin lankidetzan, 1/5.000 eskalan.

Foru Aldundiekin elkarlanean jardutea kartografia 1/5.000 eskalan orokortu eta argitaratzeko eta, ondoren, beste eskala hauek lortzeko: 1/10.000, 1/25.000, 1/50.000, 1/100.000, 1/200.000 eta 1/400.000.

EAEko udalei dirulaguntzak ematea, udaletako mapak paperean, udal kartografia eta azpiegitura kartografikoa egiteko.

EAEko azpiegitura kartografiakoaren sareak berraztertzea: Bertize Geodesikoen Sarea, Doitasun Handiko Berdinketa-Sarea eta Behaketa Grabimetrokoak.

EAEko GPS Estazio-Sarea mantentzeko lanak egin eta, on line jartzea.

EAEko Espazio-datuen Azpiegitura (EDA) landu eta abian jartzea, Foru Aldundien eta Geografi Institutu Nazionalaren lankidetzarekin.

Eusko Jaurlaritzako Informazio Geografikoko Sistema Korporatiboa garatu eta ezartzea.

Foru Aldundiekin eta Udalekin lankidetzan jardutea, datu eredu komuna izateko hiri kartografia egitean EAEko 1/500 eskalan.

EAEko ortoargazkiak urtero eguneratzea.

EAEko goraguneen eredu digitalak urtero eguneratzea.

Kartografia zabaltzea www.geoeuskadi.net bidez, Kartografiaren herritar orok erabil dezan. Kartografia arloko informazioari zabalkundea ematea eta Kartografia nahiz geodesiaren alorra sustatzeko ekintzak gauzatzea.

Udaletako, lurraldeetako eta erkidegoetako mugak aztertzea Geografia Institutu Nazionalarekin izenpetuko den hitzarmen bidez, ondoren georeferentziak egiteko.

Euskal Herriko Geografia Izendegi Ofiziala egitea Kultura Saileko Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzarekin lankidetzan.

Kartohiria proiektua egitea, Geografia Institutu Nazionala, Euskal Estatistika Institutua (EUSTAT) eta Etxebizitza, Herrilan eta Garraio Sailarekin lankidetzan.

Proiektu pilotua egitea Eusko Jaurlaritzaren Base Topografiko Bateratua eta Base Topografiko Nazionala bateratzeko, 1:25.000 eskalan.

Teledetekzio Plan Nazionalaren parte-hartzea, Geografia Institutu Nazionalaren eta Autonomia Erkidegoen lankidetzarekin.

Actualización de la Base Topográfica Armonizada de Gobierno Vasco en cooperación con las Diputaciones Forales a escala 1/5.000.

Cooperación con las Diputaciones Forales para la generalización y edición de la cartografía a escala 1/5.000 para obtener las de escalas 1/10.000, 1/25.000, 1/50.000, 1/100.000, 1/200.000 y 1/400.000.

Subvención a los ayuntamientos de la CAE para la realización de mapas municipales en papel, cartografía municipal e infraestructura cartográfica.

Revisión de las Redes de Infraestructura Cartográfica de la CAE: Red de Vértices Geodésicos, Red de Nivelación de Alta Precisión y Observaciones Gravimétricas.

Mantenimiento y difusión on line de la Red de Estaciones GPS de la CAE.

Elaboración y puesta en marcha de la Infraestructura de Datos Espaciales (IDE) de la CAE en cooperación con las Diputaciones Forales y el Instituto Geográfico Nacional.

Desarrollo e implantación del Sistema de Información Geográfica Corporativo del Gobierno Vasco.

Cooperación con las Diputaciones Forales y los Ayuntamientos para la adopción de un modelo de datos común en la elaboración de cartografía urbana a escala 1/500 de la CAE.

Actualización anual de las ortofotografías de la CAE.

Actualización del Modelo Digital de Elevaciones de la CAE.

Difusión de la cartografía al público general a través de www.geoeuskadi.net. Divulgación de la información cartográfica y acciones de fomento en materia de Cartografía y Geodesia.

Revisión de los límites municipales, territoriales y comunitarios mediante convenio con el Instituto Geográfico Nacional para su posterior georeferenciación.

Elaboración del Nomenclátor Geográfico Oficial del País Vasco en cooperación con la Viceconsejería de Política Lingüística del Departamento de Cultura.

Realización del proyecto Cartocidad en coordinación con el Instituto Geográfico Nacional, el Instituto Vasco de Estadística (EUSTAT) y el Departamento de Vivienda, Obras Públicas y Transportes.

Realización de un Proyecto Piloto de armonización de la Base Topográfica Armonizada de Gobierno Vasco y la Base Topográfica Nacional a escala 1:25.000.

Participación del Plan Nacional de Teledetección en colaboración con el Instituto Geográfico Nacional y las CCAA.

Kartografia Plan Nazionaleko Batzorde Espezialduaren barruan banatutako Kartografia Erregistroaren Lantaldean parte-hartzea.

AOPN historikoa abian jartzea EAEn, Geografia Institutu Nazionalaren, Foru Aldundien eta Eusko Jaurlaritzaren Artxibo eta Liburutegi Zerbitzuaren lankidetzarekin.

Participación en el Grupo de Trabajo del Registro Cartográfico Distribuido dentro de la Comisión Especializada del Plan Cartográfico Nacional.

Puesta en marcha del PNOA Histórico en la CAE en colaboración con el Instituto Geográfico Nacional, las Diputaciones Forales y el Servicio de Archivo y Biblioteca del Gobierno Vasco.

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUD.	OBJETIVO ACCIÓN INDICADOR
<p>4. Produktu, prozesu eta teknologia iraunkor berriak garatzeko lankidetzaz sustatzea.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Proiektu kopurua. 	4	<p>4. Fomento de la Cooperación para desarrollar nuevos productos, procesos y tecnologías con carácter sostenible.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Número de proyectos.
<p>5. ELIKAGAIEN ENPRESA ETA ERAKUNDEEN LEHIA AHALMENA HOBETZEA, MERKATARITZA/NEGOZIO ELEKTRONIKOAREN ESKEMAK SARTUTA</p> <p>1. Elikagaien sektoreko enpresa eta erakundeak berritu daitezten laguntzea, merkataritza/negozio elektronikoaren eskemak sartuta.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Proiektu kopurua. • Eragindako inbertsioa (milioika euro). 	30 1,2	<p>5. MEJORA DE LA CAPACIDAD COMPETITIVA DE EMPRESAS Y ORGANIZACIONES ALIMENTARIAS MEDIANTE LA INCORPORACIÓN DE ESQUEMAS DE COMERCIO/NEGOCIO ELECTRÓNICO</p> <p>1. Apoyo a la innovación en la organización de empresas y entidades del sector alimentario mediante la incorporación de esquemas de negocio/comercio electrónico.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Número de proyectos. • Inversión inducida (millones de euros).

PROGRAMA	PROGRAMA
7111 NEKAZARITZA, ETA LANDAREN ETA ITSASERTZAREN GARAPENA	7111 AGRICULTURA Y DESARROLLO RURAL Y LITORAL
ARDURADUNA	RESPONSABLE
<u>10 INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA</u>	<u>10 MEDIO AMBIENTE, PLANIFICACIÓN TERRITORIAL, AGRICULTURA Y PESCA</u>
NEKAZARITZA ETA ABELTZAINITZA ZUZENDARITZA, LANDAREN ETA ITSASERTZAREN GARAPENEN ZUZENDARITZA	DIRECCIÓN DE AGRICULTURA Y GANADERÍA, DIRECCIÓN DE DESARROLLO RURAL Y LITORAL

MEMORIA

NPK Nekazaritza Politika Komunaren erreformaz geroztik (2003ko ekainean proposatu zen 2005-2013 aldirako), lehen urteetan haren berri nekazariei eman ondoren, 2009ak erreforma berriaren hasiera ekarri du berekin. "NPKren osasun-azterketa" izenez ezagutzen da.

Azterketaren asmoa da NPK berri, sinplifikatu eta arrazionalizatzea, eta nekazariei ezarritako murrizketak ezabatzea merkatu-testuinguru batean. Ildo horretatik, sail honen iritziz komenigarria da produkzio-jarduerari eta balio erantsia sortzen duten politika aktiboen helburu zehatzei lotutako ordainketa-eredua ezartzea.

Gure esparruan, duela gutxi onartutako Nekazaritza eta Elikadura Politikaren Legea ardatz bihurtuko da EAEko errealitate guztietara egokitutako politika zehatzak egituratuko dituzten beharrezko mekanismoak sartzeko.

Familia-nekazaritza babesteko eta, eskalako ekonomien arabera, hura berregituratzen laguntzeko politika publikoetan sektoreak duen protagonismoaren esparruan - horrek EAEko produkzio-ereduari hazkundera eta eraginkortasuna ekarriko dizkio-, landa-garapena eta EAEko elikagaien balio-katearen lehiakortasuna bultzatuta, Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzak garatuko dituen proiektuen eta programen artean, honako hauek nabarmendu daitezke:

1. Foru-aldundiekin lankidetzan, osasun-azterketari buruzko akordioaren ondorioz sortzen diren NPKren aldaketak garatzea. "Aupada berriak" abian jar daitezkeen bultzatzea, eta laguntzak banantzen direneko sektoreak egokitzea.

Tras la Reforma de la Política Agrícola (PAC), propuesta en junio de 2003 para el período 2005-2013, y tras los primeros años de andadura con la información y puesta en conocimiento al agricultor de la misma, el año 2009 ha supuesto el inicio de la nueva reforma conocida como el "Chequeo de salud de la PAC".

El chequeo tiene como fin modernizar, simplificar y racionalizar la PAC y eliminar las restricciones impuestas a los agricultores en un contexto de mercado. En este sentido, este Departamento sostiene la conveniencia de un modelo de pagos ligado a la actividad productiva y a objetivos concretos de políticas activas generadoras de Valor Añadido.

En nuestro ámbito, la recientemente aprobada Ley de Política Agraria y Alimentaria va a convertirse en el eje para introducir los mecanismos necesarios que articulen políticas concretas adaptadas a las distintas realidades de la CAE.

En un marco de protagonismo del sector en las políticas públicas, de apoyo a la agricultura familiar y a su reestructuración según economías de escala que aporten crecimiento y eficiencia al modelo productivo de la CAE, de apuesta por el desarrollo rural y la competitividad de la cadena de valor alimentaria de la CAE, la Dirección de Agricultura y Ganadería va a desarrollar Proyectos y Programas, entre los que se pueden destacar algunos como los siguientes:

1. Desarrollo en colaboración con las Diputaciones Forales de las modificaciones de la PAC que surgen del acuerdo del Chequeo Médico. Potenciar la puesta en marcha de los "nuevos retos", adaptación de los sectores en los que se desacomplan las ayudas.

2. Nekazari Gazteen Plana (GAZTENEK) sustatzea. Zuzendaritzak eguneroko lanean, orain arte bezala, garrantzi berezia emango dio nekazari eta abeltzain gazteak laneratzeari; horri ekitea funtsezkoa izango baita euskal nekazaritza-sektoreak aurrera egiteko eta abeltzaintza-sektorerako aurreikusitako diren xede eta helburuak lortzeko. Ekoizpen-sektorean dagoen premia beharra hurrengo belaunaldiak jarrai dezaten lagunduko da; bide horretatik, EAEko nekazaritzari enpresa-bizitasun handiagoa emango zaio eta, era berean, kontsumitzailearen eskariarekin eta erabateko kalitatearen ereduarekin bat datozen kudeaketa-metodoak eta nekazaritza-jarduerak sustatuko dira.

Nekazari Gazteen Plana (GAZTENEK) foru-aldundiekin eta nekazaritzako sindikatuarekin adostu da, eta gai horren inguruan jarduteko erreferentzia izango da. Planaren barruan honako jardun-ildoak azaltzen dira:

- Aholkularitza eta monitorizazioa (Nekazari Gaztearen Bulegoa, ENB eta LGE-en laguntza, sektorearekin zerikusia duten entitateak etab.).
- Lehenengo instalazioan laguntzeko neurriak, (Nekazari Gaztearen Estatutua, diru/hazi bidezko laguntza, NPBaren laguntzak lehenengo instalaziorako, interes baxuko kredituak, babesa, zerga-laguntzak, hurrengo belaunaldiak laneratzeko laguntzak, hala nola, aurre-erretiroak, pentsio-funtsak eta kudeaketa mistorako bideak).
- Lurra lortzeko laguntza ematea (landa-lurraren gaineko jarduerak SLParen bidez, lurren bitartekaritza-zentroa, herri-mendietan jarduerak); baita landa-ingurunera heltzeko eta bizi-kalitatea izateko (sentsibilizazioa) eta beste jarduera osagarri batzuetarako ere.

3. Ekoizpen- eta ateratze-tekniken erabilera ezagutzera ematea. Alabaina, erabilera horrek bateragarria izan beharko du honako hauekin: baliabide naturalak zaintzearekin, ekosistemak zaindu eta hobetzearekin, eta landa-paisaia iraunkortasunerako baliabidea den aldetik zaindu eta hobetzearekin. Ildo horretatik, nekazaritza eta abeltzaintza ekologikoak finkatu eta garatzea bultzatu behar duten tresnen alde erabakitasunez egitea planteatzen da: Nekazaritza Ekologikoari buruzko Legea, Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseilua eta duela gutxi onartutako Nekazaritza Ekologikoa Garatzeko Plana 2009-2012.

Era berean, bertako arrazetan eta aldaeretan oinarritutako produkzioa sustatuko da. Mota horretako produkzioak berreskuratu eta baliarazteak belaunaldiz belaunaldi transmititutako ondare genetikoari eustea ahalbidetzen du. Oro har, produkzio horiek gure ingurunera oso ondo egokitze baldintzak dakartzate, baina baztertuta geratu dira, ez baitira iristen arraza eta aldaera komertzialen ohiko produktibitate-indizeetara.

2. Fomento del Plan de jóvenes agricultores (GAZTENEK). La incorporación de jóvenes agricultores y ganaderos va a seguir siendo un principio esencial en el trabajo del día a día de la Dirección, como instrumento básico para que el sector agrario vasco tenga continuidad y alcanzar los objetivos y metas pretendidas para el sector ganadero. Se tratará de atender la necesidad urgente de propiciar un relevo generacional en nuestro sector productivo, a fin de dotar a la actividad agraria en la CAE de un mayor dinamismo empresarial, de impulsar métodos de gestión y prácticas agrarias acordes con la demanda del consumidor y con el modelo alimentario de calidad total.

El Plan de jóvenes agricultores (GAZTENEK), consensuado con Diputaciones Forales y Sindicatos Agrarios, será el referente de actuación al respecto. Dentro de este Plan, se perfilan líneas de actuación como las siguientes:

- Asesoría y monitorización a los emprendedores en el sector agrario (Oficina del Joven agricultor, apoyo desde O.C.A.s y A.D.R.s, entidades relacionadas con el sector, etc.).
- Medidas de apoyo a la primera instalación, (Estatuto del Joven Agricultor, ayuda capital/semilla, ayudas PAC a la primera instalación, créditos a bajo interés, padrinozgo, ayudas fiscales, ayudas a la incentivación del relevo generacional como prejubilaciones, fondos de pensiones y fórmulas de gestión mixta).
- Apoyo al acceso a la tierra (actuaciones sobre el suelo rural desde el P.T.S., centro de intermediación de tierras, actuaciones en comunales y montes públicos), medio rural y calidad de vida (sensibilización) y otras actuaciones complementarias.

3. Promoción de la utilización de técnicas de producción y extracción compatibles con la conservación de recursos naturales, la conservación y mejora de ecosistemas y conservación y mejora del paisaje rural como instrumento de sostenibilidad. En este ámbito, se plantea el apoyo decidido a los instrumentos que deben impulsar la consolidación y desarrollo de la agricultura y ganadería ecológicas; Ley de agricultura ecológica, Consejo Vasco de Agricultura y alimentación ecológica y el Plan de Desarrollo de la Agricultura Ecológica 2009-2012.

De la misma forma se favorecerá la producción basada en razas y variedades locales. La recuperación y puesta en valor de este tipo de producciones permite el mantenimiento de un patrimonio genético transmitido a lo largo de generaciones que en general aportan condiciones de alta adaptación a nuestro entorno, pero que han quedado relegadas al no aportar los índices de productividad habituales en las razas y variedades comerciales.

4. Produkzio-eskubideak finka daitezen bultzatzea, eta kudeaketa sektorialerako tresnak (hala nola, esne-kuotak, patataren konpentsazio-funtsa eta mahastiak landatzeko eskubideak) indartu eta optimizatzea.

5. Plan sektorialak eta plan estrategikoak garatu eta eguneratzea. Horiek funtsezko tresna izan behar dute ustiapenak (esnetarako eta haragitarako behiak, txerriak, untxiak, patata, ardiak, hegaztiak, baratzea edo erremolatxa) eta bestelako jarduera osagarriak (adibidez, landatutako olibondoetatik oliba-olioa ateratzea, boilurgintza, edo babarrun lehorraren hazkuntza) irauarazi eta profesionalizatzen.

6. Aurten, nekazaritza-ustiatuek beharrezko jarduerazko lizentzia lortzea ahalbidetzeko sistemara zuzenduko den araudi berria ezarriko da. Gainera, zuzendaritza honek ustiapen-koadernoaren eta ustiatuekako iraunkortasuna diagnostikatzeko mekanismoen garapen praktikoa bultzatzen jarraituko du. Tresna horiek inplikaturik daude ustiapeneko nekazaritza- eta ingurumen-kontratuen garapenean, foru-aldundiekin koordinatuta.

7. Nekazaritzako Aseguruena Plana (FONDONEK) martxan jartzea. Plan horrek bermatuko ditu nekazarien errentak eta poliki-poliki ordezkatu egingo du kalteak ordaintzeko gaur egungo sistema. Planaren helburua euskal nekazaritzako produktuen errentak egonkortzea da, baina gainbeheran dauden sektoreetako errenten euskarria izan gabe. Ustiatuek diru-sarrentzako urtetik urterako autoaseguru-sistema bat da, eta, aseguruaren estaldura eta galeren balorazioa kalkulatzeko eremuko errendimenduak eta merkatu adierazgarrien prezioak hartzen dira erreferentziatzat. Horri buruzko araudia martxan jarriko da eta honako hauetan lan egingo da bereziki: arauaren arabera tratamendu fiskalean eta funtsa kudeatuko duen talde teknikoaren aurreikuspenetan.

8. "Ordainketa bakarraren" ezarpenean aurrera egin da. Hala, sektoreak eta Erkidegoaren zuzeneko beste laguntza-araubide batzuk zabaldu dira. Horiek ordezkatu egiten dituzte lehen "azalera" eta "abeltzaintzarako sari" izenekoak, eta NPB Nekazaritza Politika Bateratuaren eta horren MAB Merkatu Antolakunde Bateratuen ondoriozkoak dira. MAB horiek (belar-laboreak, lekadunak, alea, behi-haragia, ardi-haragia, ahuntz-haragia) Europar Erkidegoaren eskumena dakarte sektore horietan laguntzak antolatu eta arautzeko. Era berean, politika horren ondoriozko gastuak Erkidegoaren funts berriaren bidez ordainduko dira osorik: NBEUF (Nekazaritza Bermatzeko Europako Funtsa).

4. Impulso al afianzamiento de los derechos de producción y la potenciación y optimización de los instrumentos de gestión sectorial como son las cuotas lácteas, el fondo de compensación de la patata y los derechos de plantación de viñedo.

5. Desarrollo y actualización de Planes Sectoriales y Planes Estratégicos, que deberán ser piezas clave en el mantenimiento y profesionalización de las explotaciones de vacuno de leche y carne, porcino, cunícola, patata, ovino, avícola, hortícola, remolacha y otras actividades complementarias como, por ejemplo, la extracción de aceite de oliva a partir del cultivo del olivo, la truficultura o el cultivo de la alubia seca.

6. Durante este año se implantará la nueva normativa que va a orientar los sistemas que permitan que las explotaciones agrarias obtengan la licencia de actividad necesaria. Además desde esta dirección se continuará apoyando el desarrollo práctico del Cuaderno de explotación y de los mecanismos de diagnóstico de sostenibilidad en las explotaciones agrarias. Estas herramientas están implicadas en el desarrollo en coordinación con las Diputaciones Forales de los Contratos Agroambientales de explotación.

7. Seguir trabajando en la puesta en marcha de un Plan de Seguros Agrarios (FONDONEK) que garantice las rentas de los agricultores y sustituya paulatinamente el actual sistema de indemnizaciones por daños. Su objetivo es la estabilización de las rentas de los productos agrarios vascos, pero sin proporcionar una forma de soporte de rentas para sectores en declive. Se trata de un sistema de autoseguro de ingresos de explotación de tipo interanual en el que para el cálculo de la cobertura del seguro y la valoración de las pérdidas, se toman como referencia rendimientos zonales y precios medios de mercados representativos. Se pondrá en marcha la normativa redactada al respecto, trabajando principalmente en el tratamiento fiscal acorde a la norma y previsiones del equipo técnico que gestionará el fondo.

8. Se avanza en la implantación del "pago único" ampliando los sectores y otros regímenes de ayudas comunitarias directas sustituyen a las anteriormente denominadas ayudas "superficie" y "primas ganaderas", y derivan de la Política Agraria Común (PAC) y de sus Organizaciones Comunes de Mercado (OCM). Estas OCMs (cultivos herbáceos, leguminosas grano, carne de bovino, carne de ovino caprino) suponen la competencia de la Comunidad Europea para la ordenación y regulación de las ayudas en dichos sectores. Asimismo, los gastos derivados de dicha política serán sufragados íntegramente por el nuevo fondo comunitario FEAGA (Fondo Europeo Agrícola de Garantía).

Zentzu hertsian Erkidegoaren politikari dagokionez, hura betearazi eta arautzen duten Erkidegoaren berariazko arauen mende dago. Arau horiek substantzialak, prozedurazkoak nahiz kudeaketakoak izan daitezke eta guztien gainetik nagusitzen dira. Hala, prozedurazko arauei dagokienez, Kontseiluaren 2003ko irailaren 29ko 1782/2003 Araudia (EE) indargabetu eta, horren ordez, KONTSEILUAREN 2009ko urtarrilaren 19ko 73/2009 ARAUDIA (EE) ezarri da. Horren bidez, xedapen erkideak ezarri dira, nekazaritza politika bateratuaren esparruan nekazariei zuzenean laguntzeko araubideei aplikatzeko direnak, nekazariei laguntzeko zenbait araubide finkatu dira, eta 1290/2005 (EE), 247/2006 (EE) eta 378/2007 (EE) araudiak aldatu dira. Indarrean dirau Batzordearen 2004ko apirilaren 21eko 796/2004 Araudiak. Horren bidez, kudeaketa eta kontroleko sistema integratua, modulazioa eta baldintzak aplikatzeko xedapenak ezartzen dira.

Gure herriaren egungo banaketa politiko-administratiboak ere isla argia du jarduera zinegetikoan eta hori arautzen duen legerian. Egun, Espainian hamazazpi autonomia-erkidego eta bi hiri autonomo daude, eta horietako bakoitzak eskumen esklusiboak ditu ehizaren arloan. Eskumen horiek autonomia-erkidegoek bere gain hartu zituztenetik, bakoitzak bere lurraldean arautu du ehiza eta, gehienetan, norberak bere ehiza-legea eta denboraldi bakoitzerako urteko araudia argitaratu ditu. Aragoik, Asturiasek, Kanariak, Gaztela-Mantxak, Gaztela eta Leonek, Extremadurak, Galiziak, Errioxak, Murtziak, Nafarroak, Andaluziak eta Valentziak jarduera zinegetikoa arautzen duten legeak edo agindu orokorrak dituzte egun.

Euskal Autonomia Erkidegoak oraingoz ez du ehizari eta jarduera zinegetikoari buruzko lege propioirik, eta, oraindik ere, arlo hori Estatuaren apirilaren 4ko 1/1970 Legeak eta 1971ko martxoaren 25eko horren Araudiak arautzen dute. Hortaz, hori da arlo horretan legeria propioirik ez duten autonomia-erkidegoetan indarrean dagoen lege-esparrua oraindik.

Gero eta beharrezkoagoa da Autonomia Erkidego osorako ehiza- eta arrain-ustiapenak antolatzeko lege bat izatea biodibertsitatea bermatzeko duen iraunkortasun-irizpideari jarraituz, era horretara aniztasun genetikoaren zaintzeko eta gizarteak gaien eragina duten erabakietan parte hartuko duela bermatzeko. Hortaz, EAEko Ehizaren Lege Proiektua bideratzeko da.

Landa-garapen iraunkorra Europaren, Espainiaren eta Euskadiren estrategia bat da, nekazariak eta abeltzainak euren jarduerak ingurumenarekiko gero eta produktio-eredu errespetuzkoagoari jarraituz gara ditzaten oinarriak finkatzen dituen, landa-eremuen ondare naturala eta kulturala zainduko dela ziurtatzeko, eta kontsumitzaileari produktu osasungarriak eta kalitatezkoak eskaintzeko.

En cuanto a la política estrictamente comunitaria, está sometido a las normas comunitarias específicas que las disciplinan y regulan, ya sean sustanciales como procedimentales o de gestión, que prevalecen sobre todas las demás. Así, y por lo que respecta a las normas procedimentales, el Reglamento (CE) 1782/2003 del Consejo, de 29 de septiembre de 2003, ha sido derogado por el REGLAMENTO (CE) 73/2009 DEL CONSEJO de 19 de enero de 2009 por el que se establecen disposiciones comunes aplicables a los regímenes de ayuda directa a los agricultores en el marco de la política agrícola común y se instauran determinados regímenes de ayuda a los agricultores y por el que se modifican los Reglamentos (CE) 1290/2005, (CE) 247/2006, (CE) 378/2007. Se mantiene vigente el Reglamento 796/2004 de la Comisión, de 21 de abril de 2004, por el que se establecen disposiciones para la aplicación de la condicionalidad, la modulación y el sistema integrado de gestión y control.

La actual división político-administrativa de nuestro país, tiene también un claro reflejo en la actividad cinegética y en la legislación que la regula. Hoy en España existen diecisiete comunidades autónomas y dos ciudades autónomas, y cada una de ellas con competencias exclusivas en materia de caza. Desde el momento en que dichas competencias fueron asumidas por las distintas Comunidades Autónomas, cada una de ellas ha entrado a regular la caza en su territorio, publicando la mayoría de ellas su propia ley de caza y su correspondiente regulación anual para cada temporada. Aragón, Asturias, Canarias, Castilla-La Mancha, Castilla y León, Extremadura, Galicia, La Rioja, Murcia, Navarra, Andalucía o Valencia cuentan en la actualidad con Leyes u Órdenes Generales que regulan la actividad cinegética.

Hasta la fecha, el País Vasco carece de una Ley propia de caza y la actividad cinegética sigue siendo regulada por una Ley Estatal, la Ley 1/1970, de 4 de Abril, y por su Reglamento de 25 de marzo de 1971, que son aún el marco legal vigente en las Comunidades Autónomas que no disponen de legislación propia en la materia.

Se hace más necesario disponer para toda la Comunidad Autónoma de un texto legal de ordenación de los aprovechamientos cinegéticos y pesqueros de acuerdo a criterios de sostenibilidad, que garantice la biodiversidad, de forma que se conserve la diversidad genética y garantizando la participación social en la toma de decisiones que afecten a esta materia, por lo que se tramitará el proyecto de Ley de Caza de la CAE.

El Desarrollo Rural sostenible es una estrategia europea, española y vasca que sienta las premisas para que los agricultores y ganaderos desarrollen sus actividades según un modelo de producción cada vez más respetuoso con el medio ambiente, garantizando la preservación del patrimonio natural y cultural de las zonas rurales y ofreciendo al consumidor productos sanos y de calidad.

Estrategia eta araudi horrekin bat, Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Garapen Iraunkorrerako Programak (LGIP) (2007-2013) nahitaezko deklaratzeko dituzten nekazaritza- eta ingurumen-neurriak, eta landa-ingurunearen iraunkortasunarekiko gero eta konpromiso handiagoa nabarmentzen du.

Politika publikoetan iraunkortasun-irizpideak hartzeak eskatzen du sektorean partaidetza- eta lehiakortasun-aukera gehiago ezartzea. Izan ere, beharrezkoa da sektorean arreta berezia jartzen jarraitzea: zerbitzu kolektiboaren arloko hutsuneak betetzea, prestakuntza-maila eta -hautabide jakin batzuetan sartzeko zailtasunak gaitzitzea, eta ekimenerako laguntza publiko handiagoa ematea. Horren helburua da sektorea uztearen kalte endemikoa arintzea, eta ingurune hiritarraren eta landatarraren arteko aldearen ildoa txikiagotzea.

Oraindik beharrezkoa eta oso garrantzitsua da iritzien publikoa sentsibilizatzea euskal landa-espazioak dituen balioen eta ahalmenen inguruan, ingurumen-erreserba gisa, balio izugarria duen kultura-ondarearen hartzaile gisa, turismorako eta aisiarako hautabide gisa, eta kalitate handiko elikadura-baliabideen iturri gisa. Aukera sorta zabala dago. Izan ere, gure baliabide naturalak arduraz kudeatzeko gai den kolektiboaz ari gara: ikaragarriko garrantzizko balio kulturalen hartzaile eta, dituen zailtasunak zailtasun, funtzio-aniztasunaren eta dibertsifikazioaren bideari ekiteko prest gero eta gehiago.

Landaren eta Itsasertzaren Garapenerako Zuzendaritzak, Sailak ezarritako ildo estrategikoen barruan, irmo eta erabakitazunez egingo du landa-ingurunea sakondu eta bultzatzearen alde, ingurune horretan bizi diren herritarrekiko konpromisoaren ikuspegitik ez ezik, lurraldea egituratzeko eta garapen iraunkorra lortzeko ezinbesteko oinarri gisa. Ildo horretatik, honako jardunbide hauetan egingo dugu lan:

Landa-garapenerako elkarteekin topatzeko mahaia eratzea, garatu beharreko ekintza guztiak koordinatzeko, eta elkarte horiei euren jardueren bideragarritasuna bermatuko duen finantza-babesa emateko konpromisoarekin.

Landako emakumeari zuzendutako ekintza positiborako plana prestatzea, helburu hauekin: bizitza pertsonala, familiara eta laneko bateragarri egiten lagunduko duten politikak bultzatzea, denboraren kudeaketa erantzukidearekin landako biztanleak sentsibilizatzea eta, azken batean, benetako berdintasunaren arlo horretan ere aurrera egitera zuzendutako genero-politikak sustatuz.

Landa-ingurunean jarduerak ekonomikoak dibertsifikatzea, prestakuntza teknikoak bultzatuz, landa-munduari informazio- eta komunikazio-teknologietarako sarbide zabalagoa emanez, industria-ustiatzeetatik gertu nekazaritzako elikagaien industriak ezar daitezkeen sustatuz eta, horrela, lan-munduratzeko aukerak zabalduz.

En coherencia con esta estrategia y normativa, el Programa de Desarrollo Rural Sostenible (PDRS) del País Vasco 2007-2013 declara obligatorias las medidas agroambientales, poniendo de relieve un compromiso progresivo con la sostenibilidad del medio rural.

La adopción de criterios de sostenibilidad en las políticas públicas entraña nuevas oportunidades de participación y competitividad de un sector, al que es necesario seguir prestando una especial atención, eliminando carencias en materia de servicios colectivos, evitando dificultades de acceso a determinados niveles y alternativas de formación e impulsando un mayor apoyo público a la capacidad emprendedora, para, de esta forma, aminorar el problema endémico de abandono del sector y haciendo más pequeño el surco de las diferencias entre el entorno urbano y el rural.

Sigue siendo necesario y muy importante sensibilizar a la opinión pública en relación con los valores y las potencialidades del espacio rural vasco: como reserva ambiental, como depositario de un patrimonio cultural de un valor incalculable, como alternativa turística y de ocio y como fuente de recursos alimentarios de alta calidad. Hay un amplio abanico de posibilidades abiertas, pues se está hablando de un colectivo capaz de ejercer una gestión responsable de los recursos naturales, depositario, a su vez, de valores culturales de una magnitud incalculable, y, pese a las dificultades, dispuesto a emprender el camino de la multifuncionalidad y la diversificación.

La Dirección de Desarrollo Rural y Litoral, dentro de las líneas estratégicas marcadas desde la Consejería va a apostar de una forma firme y decidida por profundizar e impulsar el desarrollo del medio rural, no sólo desde una visión de compromiso con los ciudadanos y ciudadanas que viven en este medio, sino también como base inexcusable de la vertebración territorial y el desarrollo sostenible. En este sentido, trabajaremos en las siguientes líneas de actuación:

La constitución de una mesa de encuentro de asociaciones de desarrollo rural con el fin de coordinar todas las acciones a desarrollar y con el compromiso de dotar a estas asociaciones de un respaldo financiero que garantice la viabilidad de sus actividades.

La elaboración de un plan de acción positiva de la mujer rural que facilite la conciliación entre la vida personal, familiar y laboral fomentando la implementación de políticas de género destinadas a sensibilizar a la población rural con gestión corresponsable del tiempo y en definitiva, a avanzar también en este campo en la igualdad real.

La diversificación de las actividades económicas en el medio rural potenciando la formación técnica, ampliando el acceso del mundo rural a tecnologías de la información y la comunicación, promoviendo la instalación de industrias agroalimentarias cercanas a las explotaciones familiares y ampliando, de ese modo, las posibilidades de inserción laboral.

Ildo estrategiko horiek LGIP 2007-2013 berriaren finantza-euskarriarekin garatuko dira. Programa horietan, gure landa-eremuetarako ildo estrategikoak eta lehentasunezko proiektuak jasoko dira. Gainera, Zuzendaritza honek laguntza-ildoak helburu horietara bideratu ditu. Horretarako, landa-garapenerako elkarteak laguntza izan du, eskualdeetako eragile nagusiak baitira.

Era berean, euskal itsasertzaren garapenean dagozkion eragileen inplikazioarekin, helburua da gure itsasertza garatzeko programa bat prestatzea, haren ildo estrategikoak eta lehentasunezko proiektuak jasotzeko.

Aipatutako landa-garapenerako programen arabera, eta, Landa Ingurunearen Garapenerako Legea betetzen dela eta burututako azterlanak eta programa horien bitartez eskualdeetan jasotako jardura-proposamenak baliozkoak direlakoaren lekuko, landa-inguruneetako jendea ez joateko ahaleginetan jarraituko da. Horretarako, euskal landa-guneetako bizi-kalitatea hiriguneak etxebizitza, hezkuntza, osasun, oinarritzko azpiegituretako ekipamendu eta abarrei dagokienez eskaintzen duenarekin erkatzea helburu duten jarduerak azpimarratuko dira. Hori dela-eta, Eusko Jaurlaritzako sailekin lankidetzan, esparruetako bakoitzean 2010. urtean jardura zehatzak gauzatzea aurreikusi da, aurreko urteetan hasi ziren proiektu batzuk finkatuz eta garatuz.

Aurrekoari lotuta, orduan, bultzada berria eman nahi zaie etxebizitzaren sektoreari, landa-inguruneetako gazte eta emakumeen beharrak betetzeari, zerbitzuen sektoreari eta herrien etengabeko berritze eta garapenera eta abarri.

Euskal Autonomia Erkidegoko beste edozein landa-inguruneetan jardun badaiteke ere, tratamendu berezia eman nahi zaie landa-ingurune behartsuenei, eta laguntzak nekazaritza mailaren eta garapen mailaren arabera emango dira. Tratamendu berezia izango dute, halaber, aipatutako inguruneetan sartu ez baina antzeko baldintzak dituzten landa-guneek.

Landa-espazioa garatzeko ezinbesteko baldintzetako bat da espazio horrek errenta eta lana sortzea. Horri dagokionez, ekonomi sustapen eta dibertsifikazioa bultzatzea aurreikusi da.

Bereziki, arreta berezia emango zaio telekomunikazioen sektoreari; izan ere, sektore horrek lana sortzeko aukerak emateaz gain oztopo jakin batzuk ere ezabatzen baititu; esate baterako, landa-inguruneen garapenerako ekonomi bizitasun handiagoa duten guneetara eta, beraz, bertako informazio eta ezagutzetara dagoen distantzia geografikoak suposatzen duen oztopoa.

Estas líneas estratégicas se desarrollarán bajo el soporte financiero del nuevo PDRS 2007-2013. En dichos programas se reflejan las líneas estratégicas y los proyectos prioritarios de nuestras zonas rurales, y, desde esta Dirección se han enfocado las diferentes líneas de ayuda hacia el apoyo de los mismos. Todo ello con la colaboración de las Asociaciones de Desarrollo Rural, actores principales de las comarcas.

Asimismo y con la implicación de los correspondientes agentes en el desarrollo del litoral vasco, se pretende elaborar un Programa de Desarrollo de nuestra zona litoral con el objetivo de reflejar en este caso las líneas estratégicas y proyectos prioritarios de la misma.

Como se desprende de los Programas de Desarrollo Rural y de las propuestas de actuación recogidas en las comarcas a través de dichos programas, se quiere intensificar y ahondar en el esfuerzo por mantener la población del medio rural, poniendo especial énfasis en actuaciones que persigan equiparar la calidad de vida en el medio rural vasco con la que en términos de vivienda, servicios como la educación o la sanidad, equipamientos en infraestructuras básicas, etc., ofrece el entorno urbano. De ahí que para el 2010 se haya previsto, en colaboración con los correspondientes Departamentos del Gobierno Vasco, acometer actuaciones específicas en cada uno de estos ámbitos, consolidando y desarrollando así algunos proyectos ya iniciados en años anteriores.

En este sentido, se pretende profundizar en el sector de la vivienda, y en su orientación hacia las necesidades del joven y la mujer del medio rural, el de los servicios y desarrollo de los pueblos, etc.

Dejando abierta la actuación en cualquier zona rural de la Comunidad Autónoma de Euskadi, se pretende a través de nuestras líneas de ayuda, dar un tratamiento especialmente positivo a las zonas rurales más desfavorecidas, modulando las ayudas en función del grado de ruralidad y del nivel de desarrollo. Así mismo se prestará especial atención a aquellos núcleos rurales que no formando parte de estas zonas muestren similares condiciones.

Una condición indispensable para el desarrollo del espacio rural es que éste genere oportunidades de renta y empleo. En este sentido, está previsto realizar esfuerzos de promoción y diversificación económica.

En particular, se va a continuar prestando una gran atención a las oportunidades que el sector de las telecomunicaciones ofrece para crear empleo y eliminar el obstáculo que para el desarrollo de las zonas rurales representa su distancia geográfica a los centros de mayor dinamismo económico y, por lo tanto, a la información y conocimientos que en ellos se generan.

Telekomunikazioetako azpiegiturak eta horiekin lotutako eduki eta zerbitzuak gauzatzeko lagunduko da, funtsezkoa baita landa-ingurune prestakuntza, lana eta bizi-kalitatearen aukerak hiriguneetakoekin eratzeko. Horri esker, aipatutako guneetako garapen sozio-ekonomikoa Euskal Herriko gainontzeko guneen erritmo bera izango du. Nolanahi ere, euskal landa-guneen berezko izaera eta kultura errespetatuko duen garapen iraunkorren esparruan egingo da garapena, eta Euskadi Informazioaren Gizartean izeneko programaren barruan.

Landa eremuetako bizi-kalitatea hobetzeari dagokionez, ekipamenduak eta zerbitzuak abian jartzearekin edo hobetzearekin zerikusia duten proiektuei laguntza ematen jarraituko da, bai eta oinarritzko azpiegiturei ere. Hori guztia, eskualdeko landa garapeneko programen (LGP) arabera modulatu eta lehenetsiko da, EREIN laguntzak, prestakuntza-ekintzak, nekazaritza-ekonomia dibertsifikatzeko ekintzak, landa eremuan enpresa-proiektuak sortzeko ekintzak eta LEADER laguntzen bidezko zerbitzu berritzaileak erabiliz. Era berean, garapenerako berrikuntza-politikaren barruan baserri giroko turismoa, ekintza berritzaileak eta aitzindari proiektuak bultzatuko dira landa eremuetan.

Nekazaritzaren eta Arrantzaren Garapeneko Sailburuordetzak, Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko Zuzendaritzaren bidez, "bizi kalitatea eta landa-ingurunearen dibertsifikatzea sustatzeko" helburu estrategikoaren esparruaren barruan, "Arrantzaren menpeko EAEko itsasertzeko guneen egoera sozioekonomikoa biziberritzeko" ekintza-bide bat diseinatu du.

Arrantzatik neurri handi batean bizi diren eskualdeetako berriazko ekintzak direla-eta, eskualde horietako garapen sozio-ekonomikoa sustatzeko berriazko ekintzak arautzen dituen esparruaren onespenez garapenaren izaera integratua indartzen du, arrantza-sektoreko egitura-ekintzen eta enpleguaren aldeko strategiaren arteko koherentzia bermatuz. Alde horretatik, honela jardungo da: diru-laguntza horiek gabe bideragarriak izango ez liratekeen edo askoz epe luzeagoetan burutu beharko liratekeen proiektu estrategikoak (azpiegiturak) bultzatuko dira arrantzatik bizi diren euskal herrietarako. Gizarte-izaerako proiektuei lehentasuna emango zaie (zerbitzu publikoen hobekuntza), herritarren eskariz udalek egindako azalpenei erantzunez. Era berean, arrantza-sektorea osatzen duten enpresa-proiektuak hartuko dira gogoan, baldin eta tamaina txikiko enpresa familiarrek burututakoak badira eta gazte eta gizarte-egoera ahuleko taldeentzako enplegua sortzen laguntzen badute.

El apoyo al desarrollo de las infraestructuras de telecomunicaciones y de los contenidos y servicios a ellas asociados, es un instrumento clave para equiparar las oportunidades de formación, empleo y calidad de vida de la población del medio rural al medio urbano, posibilitando que el desarrollo socio-económico de estas zonas vaya al mismo ritmo que el resto de zonas del País Vasco. Todo ello en un marco de desarrollo sostenible que respete la idiosincrasia y cultura propias del espacio rural vasco y dentro del programa Euskadi en la Sociedad de la Información.

En el ámbito de la mejora de la calidad de vida de las zonas rurales, se van a promocionar proyectos relacionados con la puesta en marcha o mejora de equipamientos y servicios, así como de infraestructuras básicas. Todo ello modulado y priorizado en base a los PDRS Comarcales, y a través de la línea de ayudas EREIN y las actuaciones de formación, de diversificación de la economía agraria, de generación de proyectos empresariales en el medio rural y servicios de carácter innovador a través de la línea de ayudas LEADER. Asimismo y dentro de la política de innovación para el desarrollo también se apoyará el turismo rural y dentro de él, los agroturismos y se impulsarán actuaciones de carácter innovador y demostrativo fomentando proyectos piloto en zonas rurales.

La Viceconsejería de Agricultura y Desarrollo Rural, a través de la Dirección de Desarrollo Rural y Litoral en el marco del Proyecto de Fomento de la Calidad de Vida y la Diversificación Económica, ha diseñado una Línea de Actuación dirigida a la "Revitalización Socioeconómica de las Zonas Litorales de la CAPV dependientes de la Pesca"

La aprobación de un marco regulador de las actuaciones específicas para promover el desarrollo socioeconómico en estas zonas, vino y viene a reforzar el carácter integrado del desarrollo, garantizando la coherencia entre las actuaciones estructurales en el sector pesquero y la estrategia a favor del empleo. En este contexto, se va actuar impulsando proyectos estratégicos (infraestructuras) para los municipios pesqueros vascos, que en ausencia de esas ayudas no podrían salir adelante o deberían acometerse en plazos mucho más largos; priorizando proyectos de marcado carácter social (mejora de los servicios públicos); respondiendo a los planteamientos realizados por los Ayuntamientos a demanda de los ciudadanos y atendiendo a proyectos empresariales, complementarios al sector pesquero, liderados por empresas de pequeña dimensión y carácter familiar que contribuyan a crear empleo entre jóvenes y entre otros colectivos desfavorecidos.

Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko Zuzendaritzak 2010erako daukan beste zeregin garrantzitsuetako bat da Sasoiko Langileei zuzendutako Plan Integrala koordinatzea eta plan horren barruan oraingo Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailari dagozkion ekintzak burutzea. Honakoak dira, besteak beste, ekintza horiek: informazio-bulegoen sare eraginkorra osatzea, sasoiko langileak prestatzea, informazio- eta sentsibilizazio-ekintzak egitea, aplikazio informatikoa mantentzeaz arduratzea, eta, garrantzitsuena, ostaturako laguntzez arduratzea eta jatorrian kontratatzea.

Itsasmendikoitik (Landa eta Itsasertzeko eremuen prestakuntza integraleko zentroa) nekazaritzari buruzko prestakuntza hurrengo belaunaldien parte-hartzea finkatzeko bitarteko bezala erabiliko da nekazaritzari buruzko prestakuntza. Egun dagoen eskaria suspertuko da, eskaintza hedatzeko ekimenak bideratuko dira eta prestakuntzak lehiakortasunari begira duen garrantziaz ohartaraziko da jendea.

Eskaintzari eta araututako prestakuntzari dagokionez, 2009-2010. urtean erdi-mailako eta goi-mailako heziketa-zikloekin jarraituko da. Halaber, ziklo bakoitzerako, zentroen curriculum-diseinuak landuko dira honakoak bultzatuz: etengabeko prestakuntzaren eta prestakuntza arautuaren arteko erlazioa, praktikak enpresetan, eskolen parte-hartzea ikerketa eta prestakuntzari buruzko bertako eta Europako proiektuetan, ikasleak beste herrialde edo eskualde batzuetako eskoletara joatea eta hangoak etortzea eta Europako beste herrialde batzuetako eta Latinamerikako ikasleak hartzea. Horrekin benetan lortu nahi dena da prestakuntza arautua sektorearen eskari eta beharretatik ahalik eta hurbilen egotea, eta gure eskolak beste toki batzuetakoekin hobeto integratzea. Halaber, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailarekin batera parte hartuko da lehen sektoreko lanbide-prestakuntzako titulazio berrien curriculum-diseinuak prestatzen.

2009-2010 urtean Nekazaritza Jardueren Hasierako Prestakuntzan dagoen eskaintza euskalduntzeko ahaleginean jarraituko da, irakasleak zein irakaskuntzarekin batera doazen baliabide didaktikoak euskalduntzen.

Etengabeko prestakuntzak heziketa-eskaintza osoaren atal garrantzitsuena izaten jarraituko du, aurrera eginez eta sektorean agertzen diren aldaketa eta joera berriei aurrea hartzen saiatuz. Hori dela bide, eta kontuan hartuta onuradunek etengabeko prestakuntza eta prestakuntza trinkoa oso ondo hartu dituztela, 2010. urtean berriro bultzatuko dira biak ikastaro eta proiektu berriei.

Era berean, EAEko lehen sektoreko eta nekazaritzako elikagaien sektoreko enpresei zuzendutako prestakuntza-planen diseinua eta kudeaketa bultzatuko da.

Otro de los cometidos importantes de la Dirección de Desarrollo Rural y Litoral para el año 2010 va a ser la coordinación del II Plan Integral de Atención al Trabajador Temporero y la ejecución, dentro del mismo, de las acciones correspondientes al ahora Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca. Entre éstas hay que destacar la operatividad de la red de oficinas de información, la formación de los trabajadores temporeros, acciones de información y sensibilización, mantenimiento de la aplicación informática y, como parte más importante, la línea de ayudas para la adecuación de alojamientos y la contratación en origen.

En el ámbito de la formación, desde Itsasmendikoi, Centro Integral para la Formación, Inserción y Desarrollo Rural y Litoral, se trabajará para consolidarla como instrumento de relevo generacional tanto mediante la concienciación sobre la importancia de la formación como factor de competitividad, como con acciones divulgativas de la oferta.

Por lo que se refiere a la oferta en Formación Inicial, en el curso lectivo 2009-2010 se continuará con los Ciclos Formativos de Grado Medio y Superior tanto en actividades agrarias como marítimo-pesqueras, potenciando la interrelación entre la Formación Intensiva y Continua y la Formación Inicial, las prácticas en empresas, la participación de los Centros en proyectos locales y europeos de investigación y formación, y los intercambios y estancias de alumnado en centros formativos y empresas de otros países y regiones, así como la recepción de alumnado de otros países europeos y latinoamericanos. Los objetivos que con ello se persiguen son la aproximación de la Formación Inicial a la demanda y necesidades del sector, y la mejora de la integración de nuestros centros con el entorno y sector productivo. Asimismo, se va a colaborar con el Departamento de Educación, Universidades e Investigación en la elaboración de los Diseños Curriculares de las nuevas titulaciones de Formación Profesional en el sector primario.

En el curso 2009-2010 se continuará con el esfuerzo de euskaldunizar la oferta existente en Formación Inicial de Actividades Agrarias, euskaldunizando tanto el equipo docente como los recursos didácticos asociados.

La Formación Continua seguirá siendo el motor de toda la oferta formativa, avanzando y tratando de adelantarse a los cambios y nuevas tendencias que se apuntan en el sector primario: agrario, medio rural y litoral. Por esta razón tanto la formación continua como la formación intensiva serán objeto de un nuevo impulso en el año 2010 con la puesta en marcha de nuevos cursos y proyectos con temáticas y metodologías innovadoras.

Se impulsará también el diseño y gestión de planes de formación dirigidos a empresas del sector primario y agroalimentario de la CAE.

Teknologia berrien arloko prestakuntzari dagokionez, *IMK* autobusa aipatu behar da. Autobusaren helburua landa-eremuko eta itsasertzeko herritarrei IKTak erabiltzen eta aplikatzen irakastea da. Halaber, aipatzekoa da EMALOR proiektua; ikasgela iraunkor ibiltari horren bidez ofimatikaren eta IKTen inguruko prestakuntza ematen baitzaie EAEko hainbat eskualdetako landa eta itsas eremuko herritarrei.

Bestetik, azpimarratzekoak dira Basoko 3D SIMULATZAILEA bezalako punta-puntako prestakuntza-teknologiak eta ekipamenduak erabiltzen dituzten ikasturteak, e-learning bidez eskaintzen diren ikastaroak, beste herrialde batzuetako gazteei prestakuntza emateko ahalegina eta abar.

Halaber, aipatu beharra dago itsas arrantzaren eta itsasertzaren esparruarekin lotutako prestakuntza. Nabarmentzekoa da laketontzien erabiltzaileei zuzendutako ikastaroen katalogoa, herritarrek gero eta gehiago eskatzen baitute.

Azkenik, landa-garapenaren eta "Sektorearen Intereseko Foroetako Partaidetza" helburu estrategikoaren esparruan, modu aktiboan parte hartzen da landa-garapenaren nazioarteko proiektuetan, alegia:

- Honakoetan kide eta laguntzailea da: Euromontana (Mendiz Osatutako Eskualdeen Europako Elkarte); Europe Direct, EBko informazio-lotuneen Europako sarea, bai eta Europako Batzordea eta Legebiltzarra ere.
- Mugaz gaindiko lankidetzaren proiektuen sustapena.

Erkidegoko herrialde edo eskualdeekin etengabeko harremana izatea: Suitza, Txile, Eslovenia, Georgia, Midi-Pyrénées; eta erakunde hauekin, esaterako: IICA (Nekazaritza Lankidetzarako Erakunde Inter Amerikarra) eta FAO (Elikadura eta Nekazaritzarako Nazio Batuen Erakunde).

Azpimarratzekoa da Munduko Landa Foroa egiten ari den lana. Izan ere, egungo globalizazio-politikak landa-eremu guztiei, garatze-bidean dauden herrialdeetako landa-eremuei ere bai, nola eragiten dien aztertzen ari baita.

Aipatutako parte-hartze aktiboak xede zehatzak ditu: landa-inguruneen filosofia jakin baten alde egitea Europako erakundearen aurrean eta erabaki politikoak hartzen dituzten beste foro batzuen aurrean, proiektu interesgarrietan parte hartzea beste herrialde eta eskualde batzuekin, eta ezagutzak eta esperientziak trukitzea antzeko ezaugarriak dituzten eta landa-ingurunearen garapenari dagokionez pareko ardurak eta ikuspegiak dituzten eskualdeekin.

En el ámbito de la formación en nuevas tecnologías, cabe mencionar el autobús *IMK bus* dirigido a la capacitación de la población rural y litoral en el uso y aplicaciones de las TIC; el proyecto EMALOR como aula fija itinerante para la sensibilización y formación en TIC y ofimática de la población rural y litoral de varias comarcas de la CAE.

Reseñar también los cursos en los cuales se utilizan tecnologías formativas y equipamientos punteros como el SIMULADOR 3D Forestal, cursos que se ofertan vía e-learning, el esfuerzo por formar a jóvenes de otros países, etc.

Cabe mencionar asimismo la formación relacionada con el ámbito marítimo-pesquero y litoral y destacando el catálogo de cursos dirigidos a usuarios de embarcaciones de recreo cada vez más demandada por la población.

Finalmente y dentro del ámbito del Desarrollo Rural y en el marco del Objetivo Estratégico "Participación en Foros de Interés Sectorial" participar activamente en proyectos internacionales de Desarrollo Rural mediante:

- La pertenencia y colaboración con Euromontana (Asociación Europea de Regiones de Montaña) y la Red Europea de enlaces de información de la UE Europe Direct así como con la Comisión y Parlamento Europeos.
- El fomento de proyectos de cooperación transfronteriza.

El contacto permanente con diversas regiones de la UE así como de otros países como Suiza, Chile, Eslovenia, Georgia, Midi-Pyrénées y organismos como el IICA (Instituto Interamericano de Cooperación Agraria) y la FAO (Organización de Naciones Unidas para la Agricultura y la Alimentación).

Cabe destacar aquí el importante papel que está desempeñando el Foro Rural Mundial en su trabajo a favor de analizar los impactos que la actual política de globalización está suponiendo en todas las zonas rurales incluidas en los países en vías de desarrollo.

Esta participación activa tiene unos objetivos muy definidos, como son la defensa de una determinada filosofía del medio rural ante las instituciones europeas y otros foros de decisión política; la participación en proyectos de interés con otros países y regiones y el intercambio de conocimientos y experiencias con regiones de características afines y con inquietudes y puntos de vista similares en relación con el desarrollo del espacio rural.

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA. MAGNITUD.	OBJETIVO ACCIÓN INDICADOR
<p>1. MERKATUAK ARAUTZEA, NEKAZARI-ERRENTENTZAKO KONPENSASIZIO-POLITIKAK EZARRIZ, ORDAINKETA BAKARRAREN BITARTEZ (LGENF)</p> <ul style="list-style-type: none"> • 1. Belarki laboreentzako laguntzak. <ul style="list-style-type: none"> 1. Nekazari eta abeltzain onuradunak. 2.250 2. Laguntza jaso dezaketen hektareak. 55.000 • 2. Abere-primak (behi kume-hazleak, idiskoak, ardiak eta ahuntzak, hildako behi-azienda, ordainketa gehigarriak dituen behi-azienda). <ul style="list-style-type: none"> 1. Abeltzain onuradunak. 14.000 2. Abere-kopurua (behi-, ardi- eta ahuntz-azienda). 315.000 3. Hildako behi-azienda (zezenak, idiak, behiak eta idiskoak). 30.000 • 3. Oliba-olioaren ekoizleentzako laguntzak. <ul style="list-style-type: none"> 1. Onuradunak. 475 2. Olibondoak. 35.000 • 4. Mahastiak birmoldatu eta berregituratzeko laguntzak. <ul style="list-style-type: none"> 1. Nekazari onuradunak. 200 2. Laguntza jaso dezaketen hektareak. 400 • 5. Tabako-ekoizleentzako laguntzak <ul style="list-style-type: none"> 1. Nekazari onuradunak. 10 2. Laguntza jaso dezaketen hektareak. 15 		<p>1. REGULACIÓN DE MERCADOS MEDIANTE LA IMPLANTACIÓN DE POLÍTICAS COMPENSATORIAS A LAS RENTAS AGRARIAS, MEDIANTE EL PAGO ÚNICO (FEAGA)</p> <ul style="list-style-type: none"> • 1. Ayudas a cultivos herbáceos. <ul style="list-style-type: none"> 1. Agricultores y ganaderos beneficiados. 2. Hectáreas auxiliares. • 2. Ayudas primas ganaderas (vacas nodrizas, bovinos machos, ovino-caprino, bovinos sacrificados, bovinos con pagos adicionales). <ul style="list-style-type: none"> 1. Ganaderos beneficiados. 2. Número de animales (vacuno, ovino y caprino). 3. Número de bovinos sacrificados (toros, bueyes, vacas y novillos). • 3. Ayudas productores aceite de oliva. <ul style="list-style-type: none"> 1. Beneficiarios. 2. Número de olivos. • 4. Ayudas a la reconversión y reestructuración viñedo. <ul style="list-style-type: none"> 1. Agricultores beneficiados. 2. Hectáreas auxiliares. • 5. Ayudas a productores de tabaco. <ul style="list-style-type: none"> 1. Agricultores beneficiados. 2. Hectáreas auxiliares.
